

arteka

**Gordintasunean
trazatzen**

GEDAR

«Aitzitik, gure jarduna ez da gizarte kapitalistaren hutsuneak betetzean oinarritu behar, masa zabalak prozesu sozialista izendatzen dugun norabide horretan lerratzean baizik. Horrenbestez, antolakuntza bitartekoak eta militanteak ekoitzi behar ditugu. Antolakuntza formek egungo egoeraren eta prozesu sozialistaren garapenaren arteko bitartekaritza taktikoa egiteko funtzioa daukate, indar militanteen metaketa oinarri hartuta. Izan ere, argi eduki behar dugu proletalgo unibertsalaren arazoei erantzun iraunkor bat emateko bide bakarra klaserik gabeko jendartea eraikitzean datzala, eta ez unean uneko aterabide partzialak ematean»

06

EDITORIALA
Arteka

Kontseiluak, teorian
eta praktikan

10

KOIUNTURA
Kolitza

Kontseilu Sozialisten
artikulazioa eta
estrategia sozialista

22

ERREPORTAJEA
Martin Goñiandia eta Unai Ioldi

Pobreziaren hazkundera
eta nolakotasuna
Hego Euskal Herrian:
Mugimendu Sozialistaren
hipotesien baieztapena

42

ELKARRIZKETA
Arteka — Imanol Kañamares
eta Dani Askunze, Kontseilu
Sozialista Iruñerriako kideak

«Belaunaldi arteko izaera
daukaten eskualde mailako
kontseiluak sortzeko
apustua egin dugu»

52

ERREPORTAJEA
Arteka

Kontrol soziala. Zigor mailak,
eskubideen galera

Kontseiluak, teorian eta praktikan

EDITORIALA

Itxura latza dauka 2021. urteak. Hori bai, 2020an pandemiak ezustean harrapatu gintuen, eta aurren ezin horrela izan. Krisialdi ekonomiko ezin latzagoa ari gara bizitzen, eta are gordinagoa dena: mundu zahar bat ari da hiltzen gure muturren parean eta mundu berri bat jaiotzen. Krisialdi ekonomikoa, ekoizpen ziklo berria, kapitalismoaren azken astinduak... Era askotara izenda dezakegu bizi dugun egoera, baina zeintzuk dira momentuko erronkak komunistontzat? 2020. urtearen amaieran, Kontseilu Sozialistak aurkeztu ziren Euskal Herriko zenbait eskualdetan, sozialismoaren aldeko lerratze-lan ideologikoa egiteko, lanabes zehatzak eskaintzeko eta belaunaldiarteko lankidetzaz sustatzeko helburuekin. Ondorengo testuan, kontseiluentzako zenbait erronka proposatuko ditugu 2021. urterako. Horretarako, dualtasun baten birtartez ardaztuko dugu testua, hain zuzen, erronka praktikoa eta teoriko/kontzeptualena. Izan ere, praktika behar-beharrezkoa da indar metaketa gauzatzeko eta esperientziak pilatzeko eta ordenatzeko; arazo praktikoko/estrategikoen nolakotasunaren kontzientziarik gabe, nekez ikus dezakegu zer den eta zer ez den beharrezkoa teoriaren garapenerako. Teoriak, berriz, arazo praktikoa askatzea ahalbidetzen digu, baita agerikoak ez diren zenbait arazo begiztatzea ere. Horrenbestez, Kontseilu Sozialistak gara daitezen, praktikoko zein teorikoak izango dira urteroko erronkak.

PRAKTIKAN

Testuinguru zehatzetan esku hartzea da erreallitatean sustraia bota gura dituen edozein antolakunderen lehendabiziko betebeharra. Izan ere, indar-harremetan politikoak asko alda daitezke denbora gutxian. Edozein unetan sor daitezke norbere posizioa hobetzea ahalbidetzen duten egoerak, eta, era berean, konturatu orduko, dimentsio handiko arazoen aurrean egon gaitezke. Horregatik, gure jardun propiotik harago begiratu behar dugu beti, erreallitateari aurre egiteko. Aldaketak neurri murriztaileetan, polizia-gehiegikeria kasuak, lan-kaleratzeak, greba deialdiak zein askotariko erasoak esku-hartze lerro izan behar dira kontseiluentzat, proletalgoaren eguneroko bizitzarekin harremanetan jartzeko eta estrategiak masa zabalekin konektatzeko asmoa badute, behinik behin. Lan hori behar bezala gauzatzeko, beharrezkoa da militanteok testuinguru zehatzak modu egokian eta gure estrategiaren oinarriekin bat etorritik interpretatzeko behar beste gaitasun politiko eskuratzea, eta horrek esperientzia militantea metatzetik eta gaitasun teorikoen garapena batzetik eratorri behar du derrigorrez.

***Kontseilu Sozialistak
aurkeztu ziren Euskal
Herriko zenbait
eskualdetan, sozialismoaren
aldeko lerratze-lan
ideologikoa egiteko, lanabes
zehatzak eskaintzeko
eta belaunaldiarteko
lankidetzaz sustatzeko
helburuekin***

***Beharrezkoa da militanteok
testuinguru zehatzak
modu egokian eta gure
estrategiaren oinarriekin
bat etorritik interpretatzeko
behar beste gaitasun
politiko eskuratzea,
eta horrek esperientzia
militantea metatzetik
eta gaitasun teorikoen
garapena batzetik eratorri
behar du derrigorrez***

“

(...) premiazkoa da lanaren banaketa intelektuala sistematizatzea: zein noranzkotan ari da garatzen kapitalismoa? Zein ezaugarri izango ditu mundu mailako ekoizpen ziklo berriak? Zertaz ari gara zehazki proletarizazio prozesuaz mintzo garenean? Horiek guztiak, bizkor baina modu zuzen batean erantzun beharreko galderak dira guretzako

Hala, ekinbide praktikoari bidea argitzeko, ikerketa teorikoaren erronka izan behar luke antolakuntza formen hobekuntza errazteak. Alderdi komunistaren teoriaren nahiz historiaren ezagutzan aurrerapausoak ematea, edo nazio auziaren definizioan sakontzen jarraitzea, besteak beste, premiazko eginbehar teorikoak dira

Proletalgoaren eguneroko bizitzako arazoei erantzungo dieten *lan erremintak* sortzea. Horretarako, hainbat elementu hartu behar ditugu kontuan: zein diren estatu administrazioko aparatuen, zein karitatezko entitateek osa ezin dituzten arazoak, eta zenbatekoa den eremu horien estrategikotasun maila, besteak beste. Aitzitik, gure jarduna ez da gizarte kapitalistaren hutsuneak betetzean oinarritu behar, masa zabalak prozesu sozialista izendatzen dugun norabide horretan lerratzean baizik. Horrenbestez, *antolakuntza bitartekoak eta militanteak* ekoitzi behar ditugu. *Antolakuntza formek* egungo egoeraren eta prozesu sozialistaren garapenaren arteko bitartekaritza taktikoa egiteko funtzioa daukate, indar militanteen metaketa oinarri hartuta. Izan ere, argi eduki behar dugu proletalgo unibertsalaren arazoei erantzun iraunkor bat emateko bide bakarra klaserik gabeko jendartea eraikitzean datzala, eta ez unean uneko aterabide partzialak ematean. *Militanteak ekoiztera* begira, diziplina eta konpromiso gradu ezberdinei tokia emango dien antolakuntza ereduak sortzea garrantzitsua da. Hala ere, helburuak ez luke izan behar egungo gauzen egoera behin eta berriz erreproduzitzea, ahalik eta militantzia arduratsu, aktibo eta parte-hartzaileena eratzea baizik.

TEORIAN

Testuinguruaren inguruko analisisan sakontzea. Antonio Negri Leninen inguruko liburu eder batean idatzi zuen modura, iraultzaile errusiarraren bertute nagusietako bat garapen kapitalistaren inguruko epe ertain-luzerako analisi zuzenak egitean

zetzan, joerak irakurtzean, horrekin proletalgoaren abagune estrategikoa pentsagarria izan zedin. Guretzat ere berebiziko garrantzia duen ariketa da honakoa, eta horretarako, premiazkoa da lanaren banaketa intelektuala sistematizatzea: zein noranzkotan ari da garatzen kapitalismoa? Zein ezaugarri izango ditu mundu mailako ekoizpen ziklo berriak? Zertaz ari gara zehazki proletarizazio prozesuaz mintzo garenean? Horiek guztiak, bizkor baina modu zuzen batean erantzun beharreko galderak dira guretzako.

Kontseilu Sozialista Iruñerriako bozeramaileek GEDAR Langile Kazetari eskainitako elkarrizketan adierazi dute kontseiluei esleitzen diotela, hain zuzen, denbora batera eskualdea baino eskala geografiko handiagoan antolatzeke helburua. Horretarako, ordean, kontseiluen garapen praktikoa eta euren funtzioen inguruan sakontzea hartzen dituzte beharrezko baldintzatzat. Hala, ekinbide praktikoari bidea argitzeko, ikerketa teorikoaren erronka izan behar luke antolakuntza formen hobekuntza errazteak. Alderdi komunistaren teoriaren nahiz historiaren ezagutza aurrerapausoak ematea, edo nazio auziaren definizioan sakontzen jarraitzea, besteak beste, premiazko eginbehar teorikoak dira.

Amaitzeko: orain arte esandakoarekin, kontseiluen garapen kuantitatibo eta kualitatibo baterako beharrezko elementuak zerrendatzen saiatu gara, modu orokorrean. Hori egingarri izan dadin, epe motzerako taktika eta pentsamendu estrategikoa uztartu behar ditugu, bata besteari tartea kendu gabe. Iraultzaileontzat pentsamendurik gabeko praktika ez baita inoiz aski izango, estrategikotasunik gabeko kritika izango ez den neurri berdinean. /

ARTICULACIÓN DE CONSEJOS Y ESTRATEGIA SOCIALISTA

Un ciclo político llega a su fin. Su última etapa ha estado caracterizada por la derrota progresiva del comunismo internacional. Una etapa de pretendido «fin de la historia», en que los antagonismos sociales tenían cabida dentro del marco de juego de la política burguesa, donde la oposición reformista a la oligarquía financiera en el poder venía representada por los bloques nacionales interclasistas, expresión de la alianza de clases medias y la burguesía nacional. En cualquier caso: partidos políticos burgueses frente a partidos políticos burgueses, dirimiendo sus contiendas

de intereses particulares mediante la política institucional burguesa, mediante el derecho burgués, y mediante la guerra imperialista entre naciones.

El proletariado llegó a ser, en la segunda mitad del siglo XX, una clase minoritaria en los centros de poder imperialistas, donde se produjo una burbuja de consumo y derechos civiles a causa de, por un lado, la amenaza de la Revolución Socialista Internacional y la fuerte ideologización de las masas trabajadoras; y por otro, el modelo económico de acumulación fordista, incluido el toyotismo posterior, basados ambos en una sociedad de consu-

mo sobre las bases del imperialismo y de la producción en masa.

Esta dinámica de política de partidos de la burguesía donde la política revolucionaria quedaba cancelada ha llegado a un punto en que no da más de sí. En primer lugar, porque la base económica, la acumulación de ganancias a una tasa que permite la subida de salarios, está volando por los aires con la grave crisis global de acumulación, que en el mejor de los casos, desembocará en un nuevo modelo de acumulación mucho más agresivo que el anterior para las masas trabajadoras. Y en segundo lugar, porque la

El Comunismo, como programa histórico de una sociedad universal sin clases donde la libertad política, el bienestar y la riqueza sean patrimonio de toda la humanidad, tiene más actualidad que nunca en el contexto de graves amenazas ante las que el capitalismo ha situado a la raza humana. Esas amenazas son hoy la deshumanización total de la vida social, la destrucción irreversible de los ecosistemas, la exclusión y atomización social generalizada, la miseria material para la mayoría, la guerra total contra las poblaciones, y la dominación política aplastante de una minoría de grandes acumuladores sobre la gran mayoría de la población

bancarrota internacional de la ideología revolucionaria ha postrado ante las finanzas internacionales no sólo al proletariado, sino a todas las clases trabajadoras, incluidos amplios círculos de las burguesías nacionales.

Hoy por hoy y ya desde hace varias décadas en todo occidente, el proletariado, entendido como la clase más baja entre los trabajadores, como la clase que sólo tiene como propiedad su pura fuerza de trabajo disponible para venderla, crece y crece en número, sin que la dinámica institucional del reformismo le sirva absolutamente para nada. Los partidos de izquierda del Capital se baten en retirada ante la ofensiva de la oligarquía financiera internacional, con programas de retención conservadora de derechos caducos, con una táctica de retención de cotas de bienestar y libertades alcanzadas en el ciclo anterior, pero sin ningún éxito. Sobra decir que el reformismo ha fracasado en su intento de integrar al proletariado en el Estado como convidado de piedra, aun como masa de votantes, aunque ha triunfado en parte al alejar al proletariado de toda independencia política al crear una cultura de masa proletaria antipolítica, a través de los aparatos ideológicos del Estado.

En todo caso, el marco político del estado burgués que daba juego a la reforma está agotado. La proletarización en masa es imparable, ahora aderezada con amenazas a la supervivencia de la especie nunca vistas en la historia moderna. Los antagonismos retornan al punto de partida radical: Revolución Socialista o Barbarie.

Agotados del bloqueo político burgués que no ha traído más que miseria moral, desempleo, pobreza material, represión y cárcel, enfermedades, exclusión social, guerras y muerte a nuestra clase, pequeños núcleos militantes juveniles comienzan en distintas partes del mundo a interrogarse por la reapertura histórica al programa de la Revolución Socialista Internacional. Nuestra hora está llegando, debemos armarnos a todos los niveles para la tarea que viene.


CREAR CÉLULAS DE PARTIDO CON PROYECCIÓN DE CRECIMIENTO ILIMITADO

Nuestra tarea más importante consiste a corto plazo, a nivel ideológico, en articular e impulsar el debate internacional por la reconstitución y actualización del programa comunista revolucionario. Un debate que aúne lo

mejor de la experiencia histórica de la lucha de clases y de la teoría marxista en todos los campos de la ciencia.

El Comunismo, como programa histórico de una sociedad universal sin clases donde la libertad política, el bienestar y la riqueza sean patrimonio de toda la humanidad, tiene más actualidad que nunca en el contexto de graves amenazas ante las que el capitalismo ha situado a la raza humana. Esas amenazas son hoy la deshumanización total de la vida social, la destrucción irreversible de los ecosistemas, la exclusión y atomización social generalizada, la miseria material para la mayoría, la guerra total contra las poblaciones, y la dominación política aplastante de una minoría de grandes acumuladores sobre la gran mayoría de la población.

Pero no podemos contentarnos con la formulación de la tarea en su forma simple, ni tampoco con situar el debate internacional en el movimiento comunista como única tarea en abstracto. La formulación puramente ideológica de la tarea, sin su detallamiento práctico, se queda corta. La tarea debe concretarse, el debate es debate de avanzadas prácticas, el debate debe coger cuerpo. Entre otras



cosas, es inaplazable la tarea de ampliar en círculos concéntricos, con un crecimiento proporcional, la red de militantes comunistas revolucionarios que empieza a coger dinamismo. De cientos, pasar a ser miles, de miles a decenas y centenares de miles, a millones, hasta la recomposición total del tejido revolucionario internacional del Comunismo, del cuerpo social revolucionario, pues es éste cuerpo quien desarrollará con garantías un poderoso y auténtico debate capaz de buscar solución a todos y cada uno de los variados problemas que plantea cualquier transición histórica de modelo de sociedad. Es este proletariado revolucionario en su dimensión de masas quien acometerá con éxito la imprescindible tarea ideológica de actualizar la teoría revolucionaria y relanzar el proceso socialista al grado de ofensiva. Esa es nuestra misión generacional, la Reconstitución ideológica, política y organizativa del comunismo en todo el planeta.

Dicho esto, aterrizando a nuestro pequeño país, desde el Movimiento Socialista de Euskal Herria estamos proponiendo un modelo de actualización que consiste en un crecimiento proporcional del tejido comunista revolucionario, en torno a una estrategia unitaria pero a la vez múltiple, capaz de articularse en cada generación, en cada subjetividad oprimida, y en cada ámbito de la vida social y la producción, capaz de desplegar el marco conceptual del Socialismo en cada espacio de lucha. Un crecimiento proporcional con el potencial de transformar a todos los espacios sociales, a todas las generaciones y a todas las formas de opresión en espacios de lucha de clases entre la Revolución Socialista y la Reacción, para desarrollar la estrategia gradualmente, de la Forma Movimiento actual, pasando por la Forma de Partido como síntesis de ofensiva, hasta la Forma de Estado-Comuna como Dictadura Revolucionaria del Proletariado.

Las tres modalidades progresivas

de existencia del espacio comunista revolucionario (en adelante del proletariado revolucionario), que acabo de definir, constarían del mismo modelo organizativo, gradualmente perfeccionado y complejizado en la medida en que se avanza de escenario: ese modelo organizativo es la democracia proletaria. La democracia proletaria tiene su máxima expresión histórica en el modelo de Consejos, órganos a la vez participativos y a la vez de maximización de la racionalidad finalística del poder del proletariado revolucionario. Órganos articulados de forma centralizada entre sí para dar solución unitaria a los problemas generales, para coordinar la totalidad y para decidir las cuestiones importantes de coyuntura, donde todos los cargos administrativos son revocables de forma permanente.

Este modelo organizativo, como estructura formal para el desarrollo de la estrategia revolucionaria, consiste entonces en una red universal de consejos (células administrativas del poder proletario), tanto en su Forma Movimiento primaria, como en su Forma Partido (organización central de ofensiva que articularía todas las organizaciones e instituciones del proletariado revolucionario), como en el Estado-Comuna como estadio superior de la lucha de clases, en lo que sería una reedición de la fase avanzada de guerra civil mundial entre clases sociales como la que se vivió en la primera mitad del siglo pasado.

Desde el punto de vista del poder que representan, los Consejos Socialistas son los órganos ejecutivos del proletariado revolucionario y su poder organizado, y no los órganos deliberativos e impotentes de todo el proletariado, abiertos a una participación ficticia y vacía, a un supuesto derecho de sujetos individuales sin responsabilidad. La norma trascendental de los Consejos no es el derecho de los individuos abstractos a dar su opinión sin parar; sino la naturaleza universal del poder colectivo que estos conse-



[...] desarrollar la estrategia gradualmente, de la Forma Movimiento actual, pasando por la Forma de Partido como síntesis de ofensiva, hasta la Forma de Estado-Comuna como Dictadura Revolucionaria del Proletariado



jos organizan administrativamente, un poder colectivo al servicio de toda la sociedad, por la forma en la que disponen los grupos de trabajo, los medios colectivizados, y los objetivos participados por toda la red de consejos, fusionados con la estrategia revolucionaria. Es decir: los Consejos no son plataformas de derechos para individuos abstractos, sino la forma organizativa básica de los individuos como militantes concretos, como individuos éticos, todos diferentes, los cuales tienen no el derecho, sino el deber de la participación. De esta manera la participación deviene en actividad cualitativa, y no en un simulacro de egocentrismo, como ha fomentado el modelo burgués de participación «formal», desde la asamblea pretendidamente autogestionada del barrio donde cada uno defiende lo suyo, hasta el mismísimo parlamento.

En lo que respecta al modelo de la toma de decisiones, los Consejos tienen dos características que se complementan mutuamente: por un lado, la participación en igualdad real de todos los miembros; y por otro, la diferencia de peso de los puntos de vista, siempre medida colectivamente por su nivel de racionalidad potencial, argumentativa, y plegada a la realidad y a los objetivos revolucionarios definidos en la estrategia compartida por cada vez más y más sectores del movimiento comunista internacional (para lo cual será imprescindible impulsar el amplio debate internacional antedicho, de forma permanente).

Democracia son mayorías y minorías, pero no de cualquier tipo, sino mayorías y minorías eligiendo lo mejor para el conjunto. La democracia burguesa, que funciona con consensos entre partidos que formalmente están separados de la sociedad, que dicen representarla pero que responden en realidad a sus propios intereses sectarios, forma las decisiones administrativas siempre en función de intereses particulares de los partidos-agentes en disputa. El objetivo del debate par-

lamentario no es perfeccionar la mejor decisión para todos, sino conseguir imponer los intereses particulares de cada cual en mayor o menor medida. El modelo del diálogo político entre partidos burgueses, incluso de corrientes dentro de los partidos, es el de la negociación empresarial. Primero te intento aplastar con todos los medios a mi alcance, y luego, dada la correlación de fuerzas alcanzada, vemos a ver con qué parte del pastel nos quedamos cada uno. Esto es porque sus objetivos son siempre clasistas y particulares, y están contruidos sobre todo el andamiaje de la explotación de la fuerza de trabajo y los resultados en forma de poder privado a repartir que esta dinámica económica arroja a la esfera política.

En contraposición a la administración burguesa, los consejos son y deben ser radicalmente un proceso de participación universal, y a la vez, órganos de decisión de calidad para los intereses de todos. Eso sólo es posible si están integrados por personas militantes, entendida la militancia como formación ética progresiva hacia la participación cualitativa en la sociedad, de un modelo de persona que actúa disciplinadamente para mejorar las vidas de los demás, en instituciones sociales libres, y que reúnen el poder de forma unitaria (no

Desde el punto de vista del poder que representan, los Consejos Socialistas son los órganos ejecutivos del proletariado revolucionario y su poder organizado, y no los órganos deliberativos e impotentes de todo el proletariado, abiertos a una participación ficticia y vacía, a un supuesto derecho de sujetos individuales sin responsabilidad

Las luchas inmediatas sólo deben desarrollarse en el sentido de «momentos de la estrategia» de ese proletariado revolucionario, como posiciones de avanzada hacia el Estado Socialista, el estadio en que el proletariado revolucionario tiene un mayor grado de control de los procesos sociales generales y del territorio que el partido de la burguesía



como la administración política del estado burgués, que es el caparazón del poder real, que funciona con separación ficticia de poderes delegados, mientras que la fuente real del poder está en las centrales financieras internacionales y sus propios órganos antidemocráticos).

En definitiva, el militante comunista como modelo de persona contrapuesto al de proletario alienado sin motivación ética, cuando participa sólo debe buscar aportar, no aprovecharse personalmente, desde una subjetividad burguesa, de la organización. El Consejo, como célula administrativa del Socialismo (poder político del proletariado) sólo puede levantarse sobre la articulación de la militancia comunista, de individuos que pretenden aportar lo mejor de sí mismos a la colectividad, que saben estar callados y hablar estrictamente cuando han pensado una buena aportación, que saben valorar siempre positivamente las facultades de los demás, que realizan sistemáticamente una autocrítica, y que luchan sin cesar por mejorarse a sí mismos y al conjunto a través del trabajo disciplinado, de la compañía sana y la camaradería, y del estudio y el perfeccionamiento constante de sus facultades humanas. El Consejo Socialista tiene que ensayar el sistema de administración que como célula compone la planificación socialista de la sociedad en el Estado Socialista de Consejos, o Estado-Comuna, que es radicalmente inviable si el modelo de persona del militante comunista no alcanza cierto grado de generalización entre las masas proletarias.

Desde un punto de vista práctico, en el grado de desarrollo de la Forma Movimiento del Movimiento Socialista actual en Euskal Herria, los consejos vienen a constituir el nexo administrativo que coordinará las luchas en los frentes y en los ámbitos territoriales. Todos los procesos de lucha táctica por la modificación de las condiciones en los frentes deben ser a la vez:

1. Procesos de lucha ideológica,


donde la teoría revolucionaria avanza posiciones concretas, y donde la ideología revolucionaria se expande entre las masas proletarias, y

2. Procesos de mejora, no de las condiciones inmediatas de pequeños sectores del proletariado en el orden capitalista, sino ante todo de la proporción de control que el proletariado revolucionario tiene del ámbito social que es frente de lucha frente al grado de control que el partido de la burguesía ejerce sobre ese mismo ámbito. Esto sólo es posible a través de la concreción de un plan conceptual, dinámico y progresivo, que reconceptualice todas las esferas de la vida social como marco político para la lucha de clases, mediante conceptos de composición de un futuro Estado Socialista para la transición hacia una Sociedad Comunista.

Valga un ejemplo: las luchas tácticas en la universidad o en los centros de enseñanza por «mejoras» sólo deben promoverse en la dirección estratégica definida por un plan hacia lo que será un Espacio de Educación Socialista Internacional, bajo el control del proletariado revolucionario, donde los procesos de trabajo de la educación serían socializados totalmente. Cada paso hacia ese horizonte que sería definido por el plan estratégico puede ser un elemento de lucha táctica inmediata. Las mejoras inmediatas sólo pueden ser combustible para la Revolución Socialista Internacional si por un lado es el proletariado revolucionario quien las ejecuta con su lucha y su actividad de expansión de la ideología revolucionaria, y por otro, si sirven para aumentar el control que el proletariado revolucionario tiene en el ámbito en que se desarrollan, y por lo tanto, el control general de los procesos sociales por parte del proletariado revolucionario y su marco organizativo del poder socialista en expansión.

Como breve aclaración, entiéndase que por proletariado revolucionario estoy entendiendo el sujeto histórico en constante cambio que recorre, co-

El militante comunista como modelo de persona contrapuesto al de proletario alienado sin motivación ética, cuando participa sólo debe buscar aportar, no aprovecharse personalmente, desde una subjetividad burguesa, de la organización. El Consejo, como célula administrativa del Socialismo (poder político del proletariado) sólo puede levantarse sobre la articulación de la militancia comunista, de individuos que pretenden aportar lo mejor de sí mismos a la colectividad



De forma sintética, los Consejos representan las células administrativas de la democracia proletaria, que tienen la tarea inmediata de articular todos los frentes y las luchas concretas para desarrollar el crecimiento proporcional del tejido militante comunista, para la ampliación progresiva de la esfera de control de los procesos sociales por parte del proletariado revolucionario, y para la progresiva hegemonía del comunismo en más y más sectores del proletariado que potencialmente puedan integrarse, con distintos niveles de compromiso, en una fase de ofensiva donde el Partido Comunista sea reconstituido a escala global

mo sujeto social organizado sobre la base de la ideología revolucionaria, de la conciencia histórica, toda la historia de la lucha de clases hasta hoy, y que seguirá recorriendo estratégicamente, en el orden del concepto, la futura historia de la lucha de clases, pasando sucesivamente por formas de movimiento, partido o estado, hasta que cumpla con su tarea histórica.

En todo caso y como venía diciendo, las luchas inmediatas sólo deben desarrollarse en el sentido de «momentos de la estrategia» de ese proletariado revolucionario, como posiciones de avanzada hacia el Estado Socialista, el estadio en que el proletariado revolucionario tiene un mayor grado de control de los procesos sociales generales y del territorio que el partido de la burguesía. Para este proceso, el Partido Comunista de Masas constituirá el momento mediador, integrando a las grandes masas proletarias en el proceso de constitución del tejido militante socialista. En el proceso estratégico, las luchas concretas son por su parte construcción gradual del Poder Proletario (o lo que es lo mismo, de un poder social de acceso formalmente universal) en todas las esferas sociales en torno al marco organizativo del poder Socialista en expansión, de la dominación del proletariado revolucionario sobre la burguesía.

¿Qué representan, entonces, los Consejos Socialistas? De forma sintética, los Consejos representan las células administrativas de la democracia proletaria, que tienen la tarea inmediata de articular todos los frentes y las luchas concretas para desarrollar el crecimiento proporcional del tejido militante comunista, para la ampliación progresiva de la esfera de control de los procesos sociales por parte del proletariado revolucionario, y para la progresiva hegemonía del comunismo en más y más sectores del proletariado que potencialmente puedan integrarse, con distintos niveles de compromiso, en una fase de ofensiva donde el

Partido Comunista sea reconstituido a escala global.

Nexo táctico de frentes, y nexo estratégico e ideológico con el proceso socialista. La homogeneidad y simplicidad del Consejo Socialista asegura la potencial articulación territorial en gran escala, sin márgenes idealistas constituidos por las correlaciones de fuerza burguesas, al nivel y escala que sean necesarios en cada momento del proceso, desde un punto de vista sectorial (en la producción, en la calle, en los frentes de lucha) o territorial (a escala regional, nacional, continental), hasta la Revolución Socialista Mundial. La célula administrativa del Consejo tiene de inicio la proyección conceptual hacia una articulación progresivamente mayor, incorporando ilimitadamente nuevos frentes, nuevas remesas militantes, nuevas potencias y nuevos territorios, modificándose y mejorando a través del debate internacional. Esa es nuestra aportación al debate internacional actual, en forma de práctica, de experiencia organizativa, eso vamos a ensayar, eso estamos haciendo.

Nexo de poder, células de partido, un nuevo paso, manteniendo la iniciativa, engrasando el entusiasmo. /

ERREPORTAJEA

Pobreziaren hazkundera eta nolakotasuna Hego Euskal Herrian: Mugimendu Sozialistaren hipotesien baieztapena

Testua **Martin Goitiandia**
Unai Ioldi

Irudia **Aitor Arroyo**
Zoe Martikorena

«**P**obrezia eta askatasun eza ziklo ekonomiko berriak berrezarri duen bizi eredu proletarioaren ezaugarri nagusiak dira». Honela mintzo da Gazte Koordinadora Sozialista bizi dugun egoeraren inguruko irakurketan^[1]. Il-do berean ITAIaren urriaren 20ko irakurketak^[2], Ikasle Abertzaleaken iraileko grebaren irakurketak^[3] edo GEDARreko editorialak^[4] Mugimendu Sozialistaren etorkizunerako oinarrizko hipotesietako bat argitzen digute: «Proletariotzak ez du bizi-aukera *aburgesaturik* eta ongizate estatuek ezin diote haren egiturazko kondizioari eragin; alabaina, kapitalak proletarizazio ofentsiba abiarazi du eta hitzartu litekeen klaseen arteko paktu-sozial berriak ez dio proletariotzaren existentzia miserableari aterabiderik eskainiko; argudio-komunista, beraz, menderaezina zaie sozialdemokratei. Bitartean proletarizazio prozesu hau aztertu eta taktikoki pentsa dezagun militanteok».

Burgesiak aberastasuna (plusbalioa) metatu behar du. Gaur egungo egoeran plusbalioa lortzeko arazoak ditu. Bere irabaziak urriagoak dira. Hau honela izanda, langile klaseak pobreagoa izan beharko du burgesiak aurrera egin dezan. Gaur egun bizi dugun pobretze horri deitzen zaio ofentsiba burgesa. Mugimendu Sozialista osoaren hipotesia da, beraz, bizi baldintzak are gehiago okertuko direla. Etorkizun beltz horretan hautu politiko komunista soilik ikusten da irtenbide bakar gisa. Hipotesi hori zuzena dela frogatzeak berebiziko garrantzia du beraz. Jendeak etxebizitza bat lortzeko ezintasuna izango badu, hor egongo da politika egiteko aukera hain zuzen ere. Bizi dugun ofentsiba burgesaren eragin zehatza mugatzea beraz funtsezko ariketa da. Ariketa horretarako lehen hurbilpen bat da erreportaje hau; aipatu dugun oinarrizko hipotesiaren kontrastea.

Horretarako neurketa estatistikoki ofizialak erabiliko ditugu, errealitate enpirikoak berak hipotesia baieztatzen duela erakusteko. Horregatik aztertuko dugu Hego Euskal Herria muga admi-

nistratiboen arabera, honela emanda daudelako datuak. Era berean, bizi baldintzen okertzea epe ezberdinetan ematen den joera bat da. 2008-2018 periodoa erabiliko dugu guk, neurketa estatistikoak honela eginda egoteaz gain XX. mendeko Ongizate Estatuaren paradigmaren desegitea gehien azkartu den tarte delako. Honela epe luzeko zein motzeko distortsioak ekidingo ditugu, bai eta 2020ean pandemiaren ondorioz emandako bat-bateko aldaketak ere. Azken aldaketa hauek ez dute kapitalaren joera ezeztatzen, indartu egiten dute, baina oraindik datu gutxiegi ditugu behar bezala aztertzeko. Tira, analisiaren nondik norakoak azaldu ditugu. Orain, egin dezagun galdera nagusia: handitu al da pobrezia, Mugimendu Sozialistak dioen bezala?

POBREZIA ETA LAN INDARRA

Lehenik eta behin, nola definitu dezakegu gure hipotesiaren arabera handitzen ari den pobrezia hori? Dokumentu ofizialek darabilten definizioaren arabera: «elkarbizitza unitate batek oinarrizko beharризanei aurre egiteko diru-sarrera nahikoa ez izatearen egoera da pobrezia». Kontzeptu honetatik abiatuta zehatz-mehatz pobrezia izan ez arren gabezia material berberaren beste mailak definitu daitetzke, pobrezia maila ezberdinak alegia: «Ongizatearen ausentzia gizarte batean espero den bizi maila mantentzeko nahikoa diru sarrera ez izatearen egoera da»^[5]. Pobrezia maila ezberdin

Hau honela izanda, langile klaseak pobreagoa izan beharko du burgesiak aurrera egin dezan. Gaur egun bizi dugun pobretze horri deitzen zaio ofentsiba burgesa. Mugimendu Sozialista osoaren hipotesia da, beraz, bizi baldintzak are gehiago okertuko direla



hauek, funtsean, lan indarraren erreprodukzio defizitarioak dira; hau da, langileak bere lan indarra balio edo prezio baxuagoan saltzea^[6]. Nolanahi ere, gure hipotesia baieztatzeak honakoa inplikutzen du: langile klaseak bere lana saltzearen truke gero eta merkantzia gutxiago^[7] eskuratzen dituela trukean.

Langileek merkantzia bat, produktu bat, ekoizten dutenean hura diru baten truke saltzen da. Lortutako diru hori kapitalistaren eta langilearen artean banatu behar da; soldata eta irabazien artean hain zuzen ere. Honelako

era sinplean azalduta, oinarrizko lege honek esan nahi du kapitalistak bere zatia handitu nahi badu langilearen zatia murriztu behar duela. Murrizketa hau erlatiboa izan daiteke; lortzen den dirua handitzen bada, hazkunde egoera batean adibidez, bai irabazia bai soldata handitu daitezke nahiz eta erlatiboki etekinen zatia gehiago handitu. Hazkunde handiko egoera batean beraz langile klasearen zati baten egoera hobetu daiteke, pobreziatik urrundu, langile aristokrazia deiturikoaren kasuan bezala. Baina horretarako baldintza historiko oso zehatzak behar dira. Ohi-


koagoak dira hazkundera amaitzen edo moteltzen diren uneetan etekinen zatia mantentzen saiatzea soldatak jaitsiz^[8].

Esandakoa erraz laburtu dezakegu. Demagun toki eta une bateko langile klasearen bataz besteko bizi-baldintzak kontsumo saski batekin definitzen ditugula (etxebizitza, elikadura, jantziak, aisialdia...). Denboran zehar merkantzia gehiago kontsumitu ditzaketela baieztatu dezakegu, baina hau aberastasunaren^[9] zati handiago bat jasotzea-gatik baino merkantzia horien kostua denboran zehar murrizten doalako da. Hau da, errealitatean kapitalista da etekinak handitu dituena^[10]. Aldiz, salmentak diru gutxiago ematen duenean etekinak mantendu edo gutxiago murriztu ahal izateko soldatak murriztu behar dira. Krisi garaiak deiturikoetan murrizketa hauek kolpetik egin behar izaten dira. Honek inplikatzten du langile klasearen estratu ezberdinak pobretu egiten direla, bere erreprodukzioa ohiko mailaren azpitik kokatzen dela. Aipatu dugun kontsumo saski hori beraz ez da betetzen (etxebizitzan, elikaduran, jantzietan... eraginez)^[11]. Baina, nola ematen da pobretze prozesu hau gure inguruan, zehazki? Zein behaketa edo datuk eraman gaitzake pobretze hau frogatzera?

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA

Joera orokorrena, beti martxan da-goena, pobretze erlatiboarena da: lehen aipatu dugun bezala, indar produktiboak eta ekoitzitako merkantzia kopurua (aberastasuna) handitzen doaz une oro ekoizpen kapitalistan; hau da, lan indarraren produktibitatea hazten doa. Baina langile klaseak gaitasun material handiagoa izan arren (merkantzia gehiago kontsumitzeko aukera) aberastasun osoaren proportzioa gero eta txikiagoa du. Hau ez da epe laburrean nabaritzen, erlatiboki pobretu arren bizi kalitatea handitu daitekeelako. Hala ere honek frogatzen du langile klasea pobretzen doala bere baldintza materialak hobetu arren^[12].

A grafikoa: Soldatapekoen ordainsarien proportzioa (kotizazioak barne) merkatuko prezioetan neurtutako BPG-arekiko (%)



Iturria: Grafiko propioa, EUSTATen datuetan oinarriturik^[13]

Hau da, langile bakoitzak ekoizitako produktua igotzen doa denboran zehar (beren produktibitatea handitzen doa beraz, zehazki %47 bat 1995etik 2018ra^[14] adibidez) baina ikusi dugun bezala beren parte hartzea hazten doan aberastasun sozial horretan gero eta txikiagoa da^[15]. A grafikoa aztertzen dugun periodoa soilik ikusten da, baina hau joera historikoa da kapitalismoan. Estatu mailan adibidez 2017an soldatak BPGaren %47,3raino jaitsi ziren; 1989ko maila berbera alegia. Zergatik ezin du produktuaren zati handiago bat hartu langile klaseak bere egoe-ra hobetzeko? Honi erantzuteko azken hiru urteetan adibidez patronalak eta sindikatuek elkarri botatzen diote errua^[16] adostasunetara ez iristeagatik, baina azken hiru urtetan emandako soldataren pisuaren galera kapitalak bere boterea berreskuratzearen fruitu da, ez negoziazio kontua. Kapitalistak plusbalio falta duenean (2008an adibidez) langile klasearen zatia azkarrago murriztu behar du. Hori egitean bere erreprodukzio normalera iristen ez den lan indar kopurua handitzen da (pobrezia bera edo ongizate ausentzia adibidez handitzen dira). Hain zuzen ere hau izan da guk aztertzen dugun periodoan (2008-2018/20) gertatutakoa. Hazkundera langile klasearen egoe-ra hobetzera ez bideratzetik haratago, krisiak birmoldatze bat eskatu du plus-


Krisi garaiak deiturikoetan murrizketa hauek kolpetik egin behar izaten dira. Honek inplikatzten du langile klasearen estratu ezberdinak pobretu egiten direla, bere erreprodukzioa ohiko mailaren azpitik kokatzen dela

balioa handitzeko.

Ikerketa gehienetan, pobretzea eman den ala ez neurtzeko ohikoena errentaren garapena aztertzen hastea da^[17]. Eurostat EB mailako estatistika institutu erreferenteak normalean errenta mailen medianaren^[18] %60tik beherakoak pobrezia erlatibo gisa hartzen ditu eta %40tik beherakoak pobrezia grabe gisa. Hau horrela izanik, 2008-2018 periodoan pobrezia erlatiboa %20,2 handitu da (318.161tik 382.316 pertsonara) eta grabea aldiz %64,9 (66.540tik 109.735ra). B grafikoa pobrezia talde bakoitzaren pisu demografikoaren garapen historikoa aztertuz (1986tik) azken urteetan errenta maila baxuko talde hauetan emandako hazkundera (populazioarekiko ere) nabarmena dela antzeman dezakegu.

Pobreziaren igoera bere aurpegi gordinena izan arren, proletarizazioa

B grafikoa: Errenta baxuko taldeen pisu demografikoa (%)



Iturria: Grafiko propioa, EDSStik ateratako EUSTATen datuetan oinarriturik



Zentro inperialistako gune «aberats» batean populazioaren erdia ere etxe baten jabe izateko ezintasuna paradoxikoa da, dudarik gabe. Ikuspuntu zabalago batetik aztertuta etxebizitzak gure inguruko pobreziaren karakterizazioan duen pisu erraldoiaz jabetu gaitezke. Izan ere, gehien hazi diren lau arazoetatik hiruk lotura dute, hein handiago edo txikiagoan, etxebizitzarekin: bahiturak, atzerapenak eta jabetzen salmentak

eta ofentsiba burgesa klase estratu ezberdinen bizi-baldintzen okertzean ematen da. Hau aztertzeko errenta baxueneko populazioa handitu dela baieztatzeaz gain errentaren banaketaren medianatik gertu dauden taldeak murriztu direla ere argitu behar dugu; «aberatsak» eta «pobreak» areagotu direla, erdi-mailako errenten murrizketarekin, nolabait esateko. Disparekotasuna (desigualdad) neurtzeko Gini indizea erabili ohi da^[19]. Indize hone-tatik abiatuta. EAEk diru sarreren disparekotasunaren hazkundera bizi izan du 2008-2018 periodoan. 2012 urtetik aurrera bereziki, disparekotasunaren hazkundera joera izan da, 2018an pe-riodoaren hasieran baino puntu eta erdi handiago izanik indizea (ehunekotan). C grafikoan dugu urteroko garapena.

Gini indizeak errentaren banaketa polarizatu dela soilik esaten digu, bai-na ez zehazki nola banatzen den. Proletariotzaren lerroak langile aristokra-ziaren deskonposizioarekin hazten ari direla ikusteko gutxienez populazioa-ren banaketa errentaren tarte (dezil edo pertzentil) bakoitzean nola aldatzen den aztertu beharko genuke, eta hori errentan soilik oinarrituz. Honek erre-portaje honen mugak gainditzen ditu, baina hala ere Gini indizeak errenta-ren disparekotasunaren hazkunde bat nabarmentzeko balio digu. Orain arte-ko errentaren analisia bizi baldintzen okertzearen ohiko oinarritzko azalpe-na da.


Proletarizazioa eta krisi kapitalista, hala ere, dimentsio anitzeko fenome-noak dira. Errentatik haratago, langile klasearen bizi esparru guztietan ema-

ten da miseria eta pobretzea. Izan ere, hemen nabarmendu ditzakegu behake-ta enpiriko hutsaren mugak. Gorago ai-patu dugu pobrezia eta disparekotasu-naren hazkundera objektiboki erakustea dela analisi honen helburua hori delako Mugimendu Sozialistak darabilen hipo-tesia. Hala ere, ezin da proletarizazioa eta langile klasearen pauperizazioa errenta edo beste aldagai isolatu baten aldaketan soilik frogatu, kapitalak bizi-tzako esparru ia denak kontrolatzen di-tuelako, eta beraz bere plusbalioa han-ditzeko beharrak dimentsio guztietan eragiten duelako. Are gehiago, errenta (nominalki zein errealki) hazten den testuinguru batean ere langile klasea-ren baldintza materialak okertu daitez-ke. Baldintza hauei lotutako bestelako

behaketa enpirikoekin osatu beharko dugu, beraz, analisia.

Errentaren behaketen mugak nabar-mentzeko berehalako bidea ondarean (aurrezkietan, jabetzan dituzten higie-zinetan...) zentratzea da, egungo ofen-tsiba burgesean langile klaseak asko galdu baitu aspektu honetan^[21]. Aurrez-ki gabe bizi diren familien proportzioa 2018an 2004ko mailaraino igo izana (%33 inguru) ondarearen murrizketa-ren ondorio zuzena da adibidez, beren eguneroko diru-sarrerekin egin behar dutelako aurrera. 1996-2008 tartean etengabe handitu ostean, EAEko on-dare estimatu osoa %12,8 murriztu da 2008-2018 tartean; frogatu nahi dugun pobretzea nabarmenduz. Are gehiago, pertsonako ondarea (per capita) %13,1

C grafikoa: Gini indizearen baloreak (ehuneko eskalan) EAEn



Iturria: Grafiko propioa ISEAKetik^[20] ateratako EUSTATen datuetatik

D grafikoa: Gabezien adierazleen garapena 2008-2018 tartean (gabezia duten familia kopuruaren hazkundera ehunekotan)



Iturria: Grafiko propioa, EDSStik ateratako datuekin^[23]

murriztu da. Hala ere hemen ere beha-keta enpiriko hauen eta klase estratue-tan emandako aldaketen arteko amilde-gia nabarmendu behar da. 2008-2012 tarteko ondarearen jaitsiersa adibidez etxebizitzaren prezioaren jaitsierarekin lotu izan da. 2012-2014 urteetan aldiz bestelako ondasunen depreziazioak eragin du ondarean, baina horien pre-zioek gora egin dute 2014-2018 tartean. Azkenik 2016-2018ko ondarearen jai-tsiera aztertuta aurrezkiek izan duten pisua ikus dezakegu, hauek %19 baino gehiago jaitsi izatearen ondorioz uler-tzen baitugu ondarea murriztu izana. Periodoaren arabera elementu batzuek besteek baino galera handiagoak izan arren (horren urte gutxitan zaila baita joerak argi ikustea) 2008-2018 perio-doan errentan pobrezia eta dispare-kotasunaren hazkundera ikusi dugun bezala epe luzeagoko perspektiban ere joera berbera baieztatu dezakegu, on-darean alegia^[22].

Orduan, orokorrean ondarea eta errenta murriztu dira. Gainera aberas-tasunaren banaketa ere polarizatu egin da ikusi dugun bezala, disparekotasuna areagotuz. Ze ondorio ditu baina, egoe-ra honek? Pauperizazioaren joeraren zantzuak aurkitu baditugu, nola bizi da pobrezia hori EAEn? Pobretzeari ez

pobreziari) lotutako arazo nagusiak ja-saten dituzten populazioak aztertuz, D grafikoan 2008-2018 tartean pisu han-diena hartu dituzten arazoak alderatu ditzakegu.

Bestelako datuekin osatuz, EAEko pobrezia era oso zehatz batean ezau-garritu dezakegu. Izan ere, grafikoan adierazten diren hazkunde erraldoiak nabarmendu egiten dira bizi baldin-tzen okertzeari lotutako beste arazoen garapena aztertuta. Ohiko ikuspe-gi batetik elikadura arazoak adibidez gehiago lotu izan dira pobreziarekin. 2008-2018 periodo berberean elikadu-ra arazo larriak %40 bat murriztu dira eta oso larriak %15. Honek ez ditu fro-gatzen saiatzen ari garen pauperizazio eta proletarizazioaren hipotesiak uka-tzen, baina prozesu horiek EAE beza-lako lurralde batean dituen ondorioak akotatzen laguntzen digu. Aldiz, etxebi-zitzaren auzia ofentsiba burgesaren jo puntu bihurtu dela egiaztatu dezakegu. Hau ere baldintza zehatzen ondorio da (krisia higiezinen burbuila bati lotu-ta eman izana 2008an, etxebizitzaren prezioa bereziki altua izatea lurralde honetan...), baina etxebizitzarena auzi determinantea dela ikus dezakegu lan-gile klasearen bizi baldintzetan.

D grafikoan adierazitako ehuneko

altuen haritik etxebizitzan gastua du-ten familia kopuru handia aurkitzen dugu. Erabat amortizatua ez dagoen jabetzan (hipoteka adibidez) edo alo-kairuan bizi den populazioaren propor-tzioa handitzeak errenta baxuen egoe-ratik haratago orain arte egonkortasun bat izan duen langile klasearen estra-tuaren desegitea erakusten digu (jada etxebizitza baten jabe egiteko gai ez de-na, alegia). Izan ere, 1986-1996 tartean talde hau %31,2tik %23,5 batera jaitsi ondoren ordudanik etengabe hazi da 2014an %47,6 batera iritsi arte. Zentro inperialistako gune «aberats» batean populazioaren erdia ere etxe baten jabe izateko ezintasuna paradigmatikoa da, dudarik gabe. Are adierazgarriagoa da proletarizazioa kontuan hartzen badu-gu proportzioa hau 2004-ean %34koa besterik ez zela.

D grafikoa ikuspuntu zabalago bate-tik aztertuta etxebizitzak gure inguruko pobreziaren karakterizazioan duen pi-su erraldoiaz jabetu gaitezke. Izan ere, gehien hazi diren lau arazoetatik hiruk lotura dute, hein handiago edo txikia-goan, etxebizitzarekin: bahiturak, atze-rapenak eta jabetzen salmentak. Hone-kin batera, pobreziarekin gehien hazi den beste aspektua ere etxebizitzan kokatzen da: pobrezia energetikoarena. Tenperatura egokia izateko ezintasuna %125,5 hazteak ideia orokorra ematen digu. Honek esan nahi du pobretzearen adierazle nagusia etxebizitzaren arazoa bada honekin batera langileria gehien zigortu duen beste arazoa etxebizitza-ren kalitateari lotuta doala; pobrezia energetikoari hain zuzen ere. Zentzu honetan, eta beharrezko horniduren prezioen igoerek istorio luzea dutenez, oinarritzko bizi-kalitatearen arazo hau etxebizitzaren bidez neurtuko dugu. Izan ere etxebizitzaren kalitateari da-gokion neurgailuen arten gehien ha-zi dena hezetasunarena da. Pobrezia energetikoarekin korrelazio zuzena duen aldagai hau era jarraituan hazi da 2008tik, urte horretako %7,7 bate-tik 2018an %14,2 arte. Etxebizitzaren prezio altuak bizigarritasun baldintzak malgutzera eraman ditu maizterrak, 10



urtetan hezetasun kasuak ia bikoiztera iritsiz.

Pobreziaren hazkundera mila faktore ezberdinetan xehatu daiteke; etxebizitzatik haratago elikadura, hezkuntza, osasuna, aisialdia eta abar luze bat aztertu genezake. Zenbat eta gehiago xehatu, orduan eta zehatzago ezagutuko genuke frogatu nahi dugun fenomeno hau. Hala ere, faktore nagusietara mugatuko gara, gure pobreziaren hazkundera frogatzeko nahikoa direlakoan. Orain arte azaldutako pobreziaren sintomek eragiten duten zaurgarritasun egoera orain arteko bizi-eredua mantentzeko bat-bateko ezintasunean nabaritzen da. Honela, ohiko bizi-baldintzak finantzatzeko ezintasuna familien ekonomia defizitario batean ikusten da. Urtebetez ohiko gastuari aurre egiteko aurrezki nahikoa ez duten pertsonen ehunekoa argigarria da zentzu hone-tan, 2018an %48,4 zifra izugarrira iritsi baitzen.


Oraindik inork pentsa lezake, egunerokotasunaren ebidentzia ororen aurka, aurrezki falta hau aurreikuspen falta edo xahutzearen ondorio dela. Kontsumoaren jaitsierak, alabaina, tesi hau gezurtatuko luke frogatu nahi dugun pobretzea baieztatzen duen birtartean. Epe laburreko kontsumoan eragiten duten faktore kopuru handiak gora-behera handiak sortzen ditu, baina epe luzeko kontsumoa bizi-baldintzen adierazle aproposa izan daiteke askotan. Higiezinaren kontsumoa epe luzeko kontsumo honen adibide argia litzake, baina Espainiako Estatuan merkatu honek distortsio bereziak ditu, ikusi dugun bezala. Horren orde-z, familien arteko aldea erakusten duen aldagaia auto bat izateko aukera da. Zehazki, 10 urtetik beherako autoen kontsumoa epe luzeko kontsumo gaitasunaren ohiko elementua da. Oinarri-ziko ondasuna ez dela eman dezakeen arren, oso ohikoa zen langile aristokraziako familien artean 2008a arte. E grafikoak erakusten duen bezala, 2008-2018 periodoan kontsumo honen ez-ohiko beherakada ematen da, proletarizazioak gutxi batzuei utzi die beraz

epe luzeko kontsumorako gaitasuna.

Lehen esan bezala, nahi beste sakondu daiteke pobretze prozesuaren analisi hau, baina marko orokor bat irudikatu dugu honezkero. 2008tik pobrezia eta disparekotasuna nabarmen hazi dira, beren enplegua galdu zuen jende guztiagatik bereziki. Hazkundera 2014ean berreskuratu zenez, tarteko epean langabe poltsa handiak osatu ziren (2015eko lehen hiruhilekoan jo zuen goia, %17ko langabeziarekin^[24]). Urte luzez mantendu zen populazio langabe honek zegozkion kontribuzio-mailako langabezia-prestazioak agortu zituen, bestelako laguntzen menpe geratuz. Hain zuzen ere 2014-2016 tartean ematen da Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE, *RGI* gazteleraz) jasotzen duen populazioaren maximoa, 65.000 eta 65.500 artean mantenduz urte horietako maiatzean, berriro jaitsi eta 2018ko maiatzean 58.000 inguruan kokatu arte^[25]. Laguntza hauek dira pobreziaren hazkundera arindu dutenak, EAEn pobrezia zentzu hertsian (lan indarraren erreprodukzioa ohiko mailaren azpitik kokatzea) Estatu mailakoaren (%26) edo baita Eurozonakoaren (%22) azpitik kokatuz %18 batean. 1989tik indarrean dagoen laguntza honek EAEko kapital metaketa bereziki handia birbanatu du, krisian sortutako

Honek esan nahi du pobretzearen adierazle nagusia etxebizitzaren arazoa bada honekin batera langileria gehien zigortu duen beste arazoa etxebizitzaren kalitateari lotuta doala; pobrezia energetikoari zehazki

E grafikoak: 10 urtetik beherako autora sarbidea ez duten familietako kide diren pertsonen proportzioa



Iturria: Grafiko propioa, EDSS-ENStik ateratako datuekin


miseria nagusiki langile aristokraziaren deskonposiziora mugatuz. Honi Espainiako higiezinaren merkatuko burbuila gehituta pobreziaren gorakada etxebizitzari lotuta ezaugarritu dezakegu, lehen mailako beste behar batzuei lotu beharrean (elikadura, jantziak...). Finenan, langilea klasearen goi-estratuen murrizteak pobrezia moderatu bateko kapa berri bat elikatu du, errentaren zati handiena oinarrizko behar batzuetan gastatzera behartua dagoena eta bere soldatapeko lanera bereziki lotzen duena, lan eskaintza urria eta prekarioa den garai batean. F grafikoak errentaren erabilera hau erakusten digu.

NAFARROA

Nafarroako Foru Erkidegoak baldintza objektibo ezberdinen poderioz, antzekotasun handiak ditu EAErekin. Ez du zentzu handirik beraz testuinguruaz egin dugun gerturapen orokorra errepikatzea. Horren ordez antzekotasunak adierazi eta ezberdintasunetan zentratzen saiatuko gara, pobretze prozesu nafarra karakterizatzen saiatzeko le- rro orokorretan. Antzekotasun hauek banan-banan frogatu beharrean horiek guztiak lotzen dituen faktorera mugatuko gara: enplegua. Izan ere, langabeziaren hazkunde gogorrak eta ondorengo berreskurapen geldoan sortutako klase estratu zabalen egoera prekarioa Estatu osoko lan-merkatuaren fenomenoa da. G grafikoak erakusten duen bezala hori komunean dute, eta horrek gainerako aspektuetako antzekotasuna azaltzen du hein handi batean.


Langabezia altua eta sostengatua izateak beraz diru-sarreren agorpena eta gabezia jakin batzuen orokortzea eragingo luke Nafarroan ere, EAEn ikusi dugun bezala. Errentaren bana- keta deziletan aztertzen badugu F gra- fikoan estratuak nahiko egonkorrak direla ikus dezakegu, era oso arinean ikusten delarik aipatu dugun proleta- rizazioa. Hemen egiaztatu dezakegu aberastasunaren birbanaketa mekanis- moek are eragin handiagoa dutela Na- farroan. Hain zuzen ere erkidego hau da Estatu mailan disparekotasun (Gi-

F grafikoa: EAEko familien gastuen konposizioa (2018)



Iturria: Grafiko propioa, EUSTATen datuetan oinarriturik

G grafikoa: Nafarroako eta EAEko langabezia tasak



Iturria: Grafiko propioa, INEko datuetan oinarriturik

Pobreziaren sintomek eragiten duten zaurgarritasun egoera orain arteko bizi-eredua mantentzeko bat-bateko ezintasunean nabaritzen da. Honela, ohiko bizi-baldintzak finantzatzeko ezintasuna familien ekonomia defizitario batean ikusten da

ni indizea) eta pobrezia (arriskua zein muturrekoa) baxuenak dituenak. Hala ere EAEn ikusi ditugun joerak antze- man daitezke.

Zein da gainerako tokietan ematen ari diren joerak Nafarroan honela leuntzeko arrazoia? Bada, Nafarroako *Bermatutako Errenta* laguntzaren jasotzaileen kopurua adibidez %32 handitu da 2014-2017 tarte berean, eta %415,52 2008-2018 periodoan^[26]. DBEa eta bestelako neurrien antzera, honelako mekanismoen (ez-ohiko plusbalio batek baimendua) gainerako tokietan gogorrago azaleratzen diren joerei aurre egitea baimentzen dute. Honegatik eman da proletarizazio prozesua Nafarroan polarizazio gisa. Hau da, disparekotasuna ez handitu arren (Gini indizea 2012tik beherantz doa) %20 pobreenaren diru-sarrerak %27,1 murriztu dira, Estatu mailan %13 soilik murriztu direnean. 2014tik, hazkunde garaian alegia, %37tik gora murriztu dira kolektibo honen diru-sarrerak^[27]. Honek azaltzen du bazterketa sozialean aurkitzen diren pertsonen proportzioa ia konstante mantendu izana 2018an %16 batekin, inklusio sozialaren esparrua handitu eta inklusio prekarioarena murrizten den bitartean. Honek baieztatzen digu pobretzea muturreko estratuetan mu-

gatu dela, bazterketa honen kronifikazioa emanda.

Ondorio hau errentaren behaketara mugatzen da hala ere. Errenta aztertzean sortzen den ideiaren aurka, bazterketa egoeran daudenen %54ak uste du bere egoera materiala okertu dela, eta %31ak asko okertu dela. Era berean, bazterketa ekonomikoa ordez erlazio-bazterketa aztertzen badugu (lotura sozial falta edo lotura gatazkatsuak neurtzen dituen aldagai sintetikoa)^[28] ia %12 batean dago Nafarroan eta %7,5 batean Espainiako Estatuan, Nafarroa izanik adierazle hau altuena duen erkidegoa Balearren ondoren. Berriro ere pobreziaren hazkundera errentarekin soilik neurtzearen arriskuak ikus ditzakegu. Gastu publiko oso handi bati esker errentari dagozkion gora-beherak leundu daitezkeen arren bazterketa ekonomiko baxuena duen lurraldeak erlazio-bazterketa handienetakoa izateak kontraesan bat dagoela erakusten digu. Gobernuaren txosten ofizialak aipatutako errentaren aldagaietan zentratzen dira hain zuzen ere^[29].


Errentak argi eta garbi erakusten ez duen arren pobretzea azaltzen zaigu. Nafarren %22a etxeko hornidurak (gasa, ura edo elektrizitatearen kontsumoa) murriztera behartua egon da,

%7,6a etxebizitzari lotutako gastuei aurre egin ezinik aurkitu da eta %9,1a baldintza desegokietan aurkitzen da etxebizitzari dagokionez. Enpleguari dagokionez ere esan dugu langabezia tasak EAEko (eta orokorren Kantauri isurialdeko) gainerako lurraldeen antzeko garapena izan duela. Langabezia sostengatu honek Espainiako Estatuaren lan merkatuaren ohiko fenomenoa eragin du Nafarroan ere; enplegu prekarioa sortzea alegia. Izan ere, enplegua izatearen eta integrazio sozioe- konomikoaren arteko lehengo lotura erabat hautsi da gaur egun^[30]. Zentzu horretan, baztertuak dauden familien %49,5 dago lana duen pertsona bategatik sostengatua. Enplegua izateak jada ez du ziurtasunik bermatzen. Azken adibide gisa, pobrezia energeti- koa errepikatzen den beste ezaugarri bat da Nafarroako pobrezian. 2017an 17.900 familiek sufritzen zuten pobrezia hau^[31].Pobretzea errealtate bat da beraz, errentaren analisisan beste lurraldeetan bezain argi ikusten ez bada ere.

Pobretzea ematen ari da krisiaren baitan beraz Nafarroan, errentaren garapen orokorrean ikusten ez den arren. Analisi hau era askotan moldatu daiteke, pobretze prozesuak gogorren jo dituen kolektiboetan (emakumezkoak, etorkinak, gazteak...) gure hipotesia baieztatzeko. Baina horiek orokorrean ikusten diren joerak dira. Nafarroan zehazki, berebiziko garrantzia du lurralde arteko barne desorekak. EAEn zein beste tokietan ere ematen da hau, baina Nafarroan iparraldetik hegoaldera dagoen ezberdintasunak ofentsi- ba burgesaren eraginak ezkutatzen ditu hein handi batean; bizi baldintza mate- rialen okertzea era uniformean eman- go balitz egonkortasun bat mantendu- ko litzakeelako. Horregatik da horren interesgarria 2008 baino lehen jada existitzen ziren lurralde arteko ezber- dintasun hauek aipatzea, krisiak bertan eragin duelako nabarmen. Errentaren analisisan zentratua, Nafarroako bi ma- pek erakusten dute argien egoera.

Pobrezia eta disparekotasuna existi- tzen dira beraz, baina hauek territorial-

H grafikoa: Diru-sarreren dezilen garapena Nafarroako populazioan, 2008-2018 tartean (1-3 dezilak urdinez, 4-8 gorritz eta 9-10 grisez)



Iturria: INE






ki kontzentratzeari esker ikuspegi orokor batetik leundu egiten dira. Egoera okerrago batetik abiatuta, pobrezia eta disparekotasunaren hazkundera handiagoa izan da Tuteran aldean. Joera honek korrelazioa du enpleguan adibidez, langabezia altuagoa izanik Erribera aldean. Aurretik erabili ditugun aldagaiak zentzu honetan ere erabiltzearen, 2016an pobrezia energetikoa %5,6an kokatzen zen Pirinioetan eta %18,7an aldiz Goi-Erriberan. Pobretze prozesu honen banaketan salbuespena Iruñea bera izango litzake. Hiriburua-ren eta gainerako lurraldearen artean horrelako populazio alde handia egonik, berez Nafarroako gainerako tokiekiko batz-besteko pobrezia mailetan aurkitu arren dinamika propioak ditu hiriak. Nafarroa osoa batera hartu dugunean bezala, Iruñeak (eta bere inguru osoak, noski) duen garrantzia handia kontuan izanik hiri osoa unitate bakar gisa hartzen badugu informazioa galtzen dugu bertan ematen ari den aldatketaz. EAEko hiriburuekin egin dugun proletarizazioa nola eman den aztertuko. Konplexuegia litzake. Baina prozesuak hemen ere presentzia izan duela argitzeko nahikoa da auzo handi batzuetan pobrezia-aren tasak zein mailaraino metatu diren egiaztatzea: Etxabakoitz (%32,6), Buztintxuri (%31,8), Arrosadia (%31,5), Sanduzelai (%30,8) eta Errotxapea (%27,3) dira adibide garbienak. Tasa horiek hiriaren %10,7tik (Nafarroako batz bestekoaren azpitik dagoena) oso urrun daude. Berritoren ere baieztatzen zaigu Nafarroan krisi kapitalistaren eragina polarizazio gisa garatu dela.

ONDORIOAK

Mugimendu Sozialistaren proletarizazioaren hipotesia datu enpirikoetan oinarrituz demostratzen saiatu ondoren, proletalgo iraultzailearentzat eduki ditzakeen ondorioei buruz arituko gara. Izan ere, ez da lan makala aurrean duguna.


Burgesia-txikiaren eta langile aristokraziaren pakto politikoan oinarritzen

1. Mapa: Pobrezia larriaren tasa Nafarroan, zerbitzu sozialetako eremuen arabera (2017)



Iturria: Nafarroako pobrezia-ri eta berdintasun ezari buruzko III. txostena^[32]

2. Mapa: S80/S20 erlazioa Nafarroan, zerbitzu sozialetako eremuen arabera (2017) ^[33]



Iturria: Nafarroako pobrezia-ri eta berdintasun ezari buruzko III. txostena

den adierazpen politiko, organizatibozekin kulturalaren agorpen historikoa- ren aurrean kokatuko ginateke Euskal Herrian. Ez soilik krisi kapitalistak materialki ezinezko egiten duelako, politikaren gaineko jarrera boluntarista bat erakusten dutelako ere. Honen ondorioa da alderdi guztiak pandemiak azkartu duen kapital-lanaren antagonismo espontaneo zein kontzientearen aurrean guztiz galdurik aurkitu izana. Are okerragoa izan da denborarekin sozialdemokrata hauek hartzen joan diren posizioa, aldarrikapen sozialen aitzakipean Estatu gehiagoren eskaria egin baitute. Pobrezia hazkorrari aurre egiteaz mintzo diren pseudokeynesiar hauek Estatu polizial eta autoritarioago baten eskaria daramate, jakitun ala jakin gabe. Ongizate Estatuaren garaian posizio «aurrerakoi» eta «sozial» honetokia aurkitu izan dute, baina baieztatu dugun etorkizun beltzaren hipotesiak horien aukera ezabatzen du datorren ziklo berrian. Estatu burgesak bere funtzioa betekatu du burgesia- ren zerbitzura, eta bere alde edo kontra soilik kokatu ahalko gara.

Beraz, proletalgoaren independen- tzia politikoaren premisa komunista iraultzailea besarkatzeko, eta azken muturreraino eramateko testuinguru historiko aiposean aurkitzen gara. Esan bezala, klase-ertaina deritzon bloke politikoaren parte diren klase zein klase-estratuak proletarizazio prozesu batean sartzen ari baitira, masa-proletario handi bat eratuz. Eta hor- taz, bere programa politikoak bideraga- rritasuna galdu baitu.

Bestetik, pobretzearen artikulazio politikoaren erronkaren aurrean aur- kituko ginateke. Izan ere, esperientzia historikoak erakutsi digun bezala, pro- letalgoaren kontzientzia komunista ez da espontaneoki eratzen, eta zo- ritzarrez, gustatu ala ez, borondate iraultzailea edukitzea ez baita aski: beharrezko suertatzen zaigu Botere Burgesaren simetrian, Botere Proleta- rioa sistematizatzea, horretarako eska- la sozial osoan artikulatuz.

Klasearen artikulazio politikoaren

Beraz, proletalgoaren independentzia politikoaren premisa komunista iraultzailea besarkatzeko, eta azken muturreraino eramateko testuinguru historiko aiproposean aurkitzen gara

hautu argia egin du Mugimendu Sozialistak, proletalgoaren berehalako beharrak logika politiko iraultzailearen baitan txertatzeko instituzio politiko desberdinen eraketa honen adibide direlarik. Argi eta garbi adierazi zuen Ane Ibarzabalek ideia guzti hau, GKSren izenean: «Pobrezia eta askatasun eza ekoizpen-ziklo berrian ezartzen ari den bizi eredu proletarioaren ezaugarri nagusia dela defendatu izan dugu. (...) pandemiaren hedapena argudiatuta, eredu sozial basatia inposatu digute egun batetik bestera: polizia-estatua, eskubide zibil eta politikoen muturreko murrizketa, agintearekiko obedientziarako dei orokorra eta langileriaren diziplinamendu zorrotza.

Ez dirudi osasun-larrialdia gainditze-ko diseinatutako neurriak direnik; are gehiago, guk defendatzen duguna da diseinatu direla pobrezia gehiago orokortzeko, eskubideak eta askatasuna indargabetzeko, eredu soziokultural alienantea sustatzeko eta polizia-estatua indartzeko. (...) Mundu-mailako gizarte burgesa gainbehera betean sartuta dago. Baina larriena ez da gizarte burgesa giza proiektu bezala porrot egiteko arriskuan dagoela, baizik eta historia bera, emantzipaziorako giza proiektu bezala, arriskuan dagoela. Bizirik mantendu behar dugu ortzi-muga komunista, eta horretarako, nahitaez, langileriaren antolakuntza komunista eraiki behar da». /



ERREFERENTZIAK

[1] Gazte Koordinadora Sozialistaren sare sozialetatik ateratako adierazpenak.

[2] Itaia.eus

[3] Ikasle Abertzaleaken sare sozialetan.

[4] Gedar.eus

[5] Encuesta De Necesidades Sociales 2018 (CAV) - Módulo Epds-Pobreza.

[6] Oso kontuz ibili, esaldi honek ez du esan nahi lan indarraren balioa eta prezioa gauza bera direnik. Lan indarraren (langilearen lan egiteko gaitasuna) erostean honen balioa langilearen erreprodukzioak determinatzen du; langile hori

lanera itzultzeko kostuak alegia (bere etxea, familia, janaria eta abarren kostua). Prezioa aldiz faktore ezberdinek eragindako aldetengatik mugitzen da. Lan indarra bere berezko erreprodukzio kostuaren azpitik saltzea balioan eman den aldaketa bategatik zein prezioan eman den aldaketa bategatik izan daiteke.

[7] Lan sozialaren zati txikiago bat, ez merkantzia kopuru txikiago bat.

[8] Kontuan izan soldataren kategoriaren zentzu zabalenez ari garela (nominatik harago). Era berean, ez gara soldata nominalaz ari, termino errealetan eros ditzaketen merkantzietaz baizik (soldata erreala adierazle aproposagoa da adibidez, baina ez erabat zehatza).

[9] Aberastasuna, gizarte kapitalistan, merkantzia multzo bat da. Honela hasten da *Kapitala*. Une oro etekinen eta soldaten zatiaz hitz egiten dugunean, lan ordainduaren eta ez ordainduaren, plusbalioaren, arteko banaketaz ari gara.

[10] Hau da plusbalio erlatiboa deiturikoa.

[11] Azken hamar urteetan, 2008ko krisiaren harira, pobretze honen fase bat eman da. 80ko hamarkadatik neoliberalismo gisa ezagutu den joeraren baitan hamar urteko azpi ziklo bat bizi izan dugu pobretze prozesuan. Urte hauetan langile klasearen aberastasunaren zatia murriztu da, baina bereziki nabarmendu da langile klaseko estratu batek, langile aristokraziak, bere baldintza materialak galdu dituela, proletarizazio deitu zaion prozesuan.

[12] Fakzio politiko erreformistek langile klasearen bizi kalitatearen berehalako hobekuntza hau erabili izan dute (II. internazionaletik, Bernstein bezalakoekin) bake sozial baten aukera defendatzeko.

[13] EUSTAT

[14] Kalkulu propioak EUSTATEko datuak erabiliz.

[15] Kontuan izan hemen soldata guztien batura langile klaseak jasotzen duen «tartaren zati» gisa onartzen ari garela. Soldata guztiak ez dira langile klaseko kideenak, are gehiago, soldata handienak eta gehien handitzen diren soldatak ez dira langile klaseko kideenak, beraz oso urruti

gaude joeraren estimazio zuzen batetik.

[16] Noticias de Gipuzkoa: *¿Por qué crece el PIB pero los sueldos no?*

[17] 4. oin-oharrean adierazitakoarekin bat eginenez, adieraziko diren datu guztietan kontuan izan behar da populazioaren zati baten egoera ez dela islatzen. Bat ere integratuak ez dauden kolekti-boak askotan ez dira estatistiketan sartzen ere, beraz emandako datuak are okerragoak direla pentsatu behar dugu une oro.

[18] Estatistikan, mediana hainbat datu txikienetik handienera ordenaturik daudela erdian dagoen datua da. Aldagai kuantitatiboetarako soilik determinatu daiteke beraz.

[19] Gini indizea Lorenzen kurbaren (errentaren eta populazioaren pertzentilen arteko kurbaren) azaleratik eratortzen den adierazle bat da. Funtsen populazioaren dezil bakoitzak errentaren zein proportzio jasotzen duen aztertzen du. 0 eta 1 arteko balioak hartzen ditu; 0 balioak erabateko berdintasuna adieraziko luke (populazioaren %30ak errentaren %30 jasotzea zehazki) eta 1 balioak erabateko disparekotasuna (pertsona bakarrek errentaren %100 jasotzea).

[20] ISEAK: *Pobreza y desigualdad en Euskadi: el papel de la RGI*.

[21] Aipagarrienak higiezinaren burbuilaren leherketa eta moneta politika dira. Hemen jorratuko ez dugun arren, politika fiskalak errentan zuzenean eragiten badu moneta politikak aurrezkiak (eta zorrak) murrizten ditu; balio-transferentziak eraginez. 2008tik hazkunde kuantitatiboak (*expansión cuantitativa*) protagonismo handia hartu du 2020an inoiz baino diru gehiago inprimatuz.

[22] Gainazalaren analisi honetan ezin dugu sakondu, baina ondarean murrizketa honetan ere ondarearen murrizketaren baitan klase-joera ezberdinak nabarmendu ditzakegu. Alde batetik aurrezkien murrizketaren zati bat ondarerako ondasunen erosketen igoerarekin azaldu daiteke (bigarren etxebizitzak...), %23ko igoera 2008-2018 tartean. Honek ez dio ondarearen jaitsiera orokorrari aurre egiten, izan ere beste aldetik honelako ondasunik ez duten familien proportzioa %70eraino igo baita periodo berean. Honek esan nahi du populazioaren zati batek bere ondarea

handitu duen bitartean askoz ere handiago den beste zati batena murriztu egin dela.

[23] Encuesta de necesidades sociales CAE 2018. Módulo EPDS-POBREZA.

[24] EUSTAT

[25] Lanbide.eus

[26] Hemen nabarmentzen da analisiak tarte jakin batean (2014-2017) egiteko duten interesa.

[27] Informe sobre exclusión y desarrollo social en Navarra. Fundación Foessa.

[28] Errentari dagokion bazterketa ekonomikoa, parte hartze politikoari dagokion bazterketa eta aipatu berri dugun erlazio-bazterketa erabili ohi dira analisirako.

[29] Navarra.es «La pobreza severa en Navarra descende un 25% el último año».

[30] Hau da Industriako Erreserba Armadaren funtzioa. Marxen kategoria teoriko hau ez langa-bezia zehatz-mehatz, baina kapital metaketaren dinamikaren baitan ekoizpen prozesutik kanporatutako lan indarraren (behar bezala erreproduzitzea lortuko ez duen lan indarraren) funtzio azaltzen digu.

[31] «La pobreza energética en España. Aproximación desde una perspectiva de ingresos». Fundación Naturgy.

[32] Observatorio de la Realidad Social: *III Informe sobre la pobreza y la desigualdad social en Navarra*. Departamento de Derechos Sociales del Gobierno de Navarra, Pamplona-Iruña, 2019.

[33] Bi dezil aberatsenen eta pobreenen bataz besteko errenten arteko erlazioa.



Kontseilu Sozialistak aurkeztu dituzte Euskal Herriko hainbat eskualdetan

Iazko abenduaren 24an eman zuten Kontseilu Sozialista Iruñerriaren (Nafarroa) sorreraren berri eta, or-dutik, beste hainbat Kontseilu Sozialista atera dira argitara Euskal Herriko hainbat eskualdetan: Deba Bailaran, Donostian, Buruntzaldean, Goierrin, Tolosaldean, Urola Erdian, Urola Kostan (Gipuzkoa), Bilbon, Busturialdean, Durangaldean, Hego Uriben, Lea-Artibain (Bizkaia), Larraunen, Sakanan (Nafarroa) eta Gasteizen (Araba).

Aurreko urtearen amaierarekin eta urte honen hasierarekin lekuan leku aurkeztu diren Kontseilu Sozialistetako kideek azpimarratu dutenez, «proletarizazio prozesu bat bizitzen ari gara». Kontseilu Sozialistak krisi kapitalistaren eta pandemiaren testuinguruan jaio direla azaltzeaz gain, azken horrek proletalgoaren eguneroko bizitzan izan dituen ondorioak eraman dituzte lehen lerroa, ohartaraziz, besteak beste, aipatutako proletarizazio prozesuaren azkartzea nahiz eskubide murrizketa arbitrarioak ekarri dituela.

EUSKAL ESTATU SOZIALISTA HELBURU

«Klaserik gabeko eta inolako zapalkuntzarik gabeko jendarte bat» eraiki nahi dutela nabarmendu dute Kontseilu Sozialistek, helburu estrategikotzat hartuta Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntza. Antolakuntza komunistarako tresna izatea litzateke Kontseilu Sozialisten asmoa; hainbat problematika zehatzi erantzungo diete tokian toki, eta «Mugimendu Sozialistak garatutako tesien zabalpena» ere egingo dute.

Azkeneko asteetan kontseiluetako kideek azaldu dutenez, eskualdeka antolatu dira Kontseilu Sozialistak, eta eskualdeka ekingo diote lanari. «Antolakuntza eskala handitzeko», hain zuzen, «kontseiluak eta euren jardun politikoa ezagutzera ematea» eta «aurrerapauso teoriko zein programatikoak ematen jarraitzea» aipatu dituzte baldintza modura.

Belaunaldien arteko lankidetzarako espazio izango direla ere nabarmendu dute kontseiluek, Mugimendu Sozialis-

«Antolakuntza eskala handitzeko», hain zuzen, «kontseiluak eta euren jardun politikoa ezagutzera ematea» eta «aurrerapauso teoriko zein programatikoak ematen jarraitzea» aipatu dituzte baldintza modura

tak horretan izan dituen gabeziei aurre egiteko. Hala, ikuspegi integrala oinarri egingo dute lan, «Mugimendu Sozialistako gainontzeko eragileen esparrutik haragoko lan-eremuak ukituz».

MARTXAN

Kontseilu Sozialistak hasi dira, pixkanaka, ibilbide horretan urratsak egiten eta aurreneko agerpenak egiten: besteak beste, Kontseilu Sozialista Lea-Artibaik oinarritzko produktuen eta elikagaien bankua aurkeztu du Lekeitian (Bizkaia), Kontseilu Sozialista Deba Bailarak Zubitzako Eskola birjabetu du Bergaran (Gipuzkoa) «hausnarketa eta eztabaida politikorako gunea, dinamika kulturalen plaza eta lan sozial zein sindikala gauzatze-ko espazio» izan dadin, eta Kontseilu Sozialista Urola Erdiak manifestaziora deitu zuen Azpeitian (Gipuzkoa) urtarrrila erdialdean, «langile antolakuntza-ren beharra» aldarrikatzeko oldarraldi kapitalistaren aurrean. Ehunka lagunek hartu zuten kalea. /

Kontseilu Sozialista Urola
Erdiaren manifestaziora Azpeitian
(Gipuzkoa) 2021eko urtarrilean,
«langile antolakuntzaren beharra»
aldarrikatzeko oldarraldi
kapitalistaren aurrean

Irudiak Erik Aznal



ELKARRIZKETA

Imanol Kañamares eta
Dani Askunze

Kontseilu Sozialista
Iruñerriako kideak

*«Belaunaldi arteko
izaera daukaten
eskualde mailako
kontseiluak
sortzeko apustua
egin dugu»*

Testua
Irudiak

Gedar Langile Kazeta
Gaizka Azketa



Iruñerriko Kontseilu Sozialista izan zen aurrenekoa jendaurrean aurkezten. Kontseilu Sozialisten inguruko zenbait gako estrategiko askatzeko ariketa izan zen honako elkarrizketa, iazko abenduaren amaieran, Iruñerriko bi bozeramaileen ahotik.

Zergatik sortu da Kontseilu Sozialista Iruñerria?

Egun bizi dugun krisi kapitalista krisi ekonomikoa izateaz gain, gizarte osoaren egiturazko krisia ere bada.

Zehatzago esateko, proletarizazio prozesu bat bizitzen ari gara, non pobretze orokortu baten baitan, proletalgoaren bizi-baldintzak gero eta okerragoak diren. Pandemiak prozesu hori bizkortu du eta, horri, osasun-arriskuaz gain, Estatuak martxan jarri duen eskubide politikoen eta zibilen murriztea gehitu behar zaio.

Testuinguru horrek, kondena bat izateaz gain, abagunea irekitzen digu proletalgoa subjektu politiko bezala eratzeko. Proletalgoaren interesak modu independentean defendatzea inoiz baino beharrezkoagoa da eta, zentzu horretan, Kontseilu Sozialisten sorrera aurrerapauso garrantzitsua dela uste

dugu antolakuntza komunista garatzen jarraitzeko.

Zertarako sortu da antolakunde hau?

Gure proiektu historikoari berrekiteko sortu da Kontseilu Sozialista Iruñerria, hau da, gizarte komunistaren eraikuntzari gaurdanik ekiteko. Gizarte burgesaren eta bere ondorioen aurrean programa komunistaren gaurkotasuna aldarrikatu nahi dugu, uste baitugu hori dela proletalgoak duen aukera bakarra. Noranzko horretan aurrerapausoak emateko asmoz sortu gara, proletalgoaren bizi-baldintzen defentsa egiteko eta posizio estrategikoak indartzeko.

Horretarako, esparru desberdinetan tresna erabilgarria izateko asmoa dugu. Elkartasun antolatuaren bidez eta ikuspegi integral batetik, langile klaseko sektore, belaunaldi eta subjektibitate desberdinei tokia eman nahi diegu.

Zein dira Kontseilu Sozialistaren oinarri estrategikoak?

Klaserik gabeko eta inolako zapalkuntzarik gabeko jendarte bat eraiki nahi dugu; komunismoa, alegia. Jendarte komunista eraikitzeke baldintza langile klaseak burgesiaren boterea suntsitzea eta bere botere propioa erakitzea da, eta horrela ulertzen dugu guk gure egitekoa.

Zapalkuntzarik gabeko jendarte baten eraikuntzan Euskal Estatu Sozialista aldarrikatzen dugu helburu estrategiko gisa, maila internazionalean antolatu beharreko prozesu sozialista batean, hori baita Euskal Herritik egin ahal diogun ekarpena.

Zein izango da Kontseilu Sozialistaren eguneroko jarduna Iruñerrian?

Langile klasea hainbat eremutan aurkitzen da babesgabe eta eremu horietan jarriko ditugu martxan lan-lerroak. Problematika ezberdinei erantzuteko asmoa dugu eta norabide horretan pausoak ematen jarraituko dugu.

Bestalde, Iruñerriko erreferentzia

politiko eta ideologiko sozialista izateko asmoa dugu. Horretarako, orain arte Mugimendu Sozialistak garatutako tesien zabalpena egitea eta horretan sakontzea dagokigu, koadro militanteak sortuz eta antolakuntza lurraldean hedatuz.

Kontseilu Sozialista Iruñerria sortu zenetik, hainbat kontseilu aurkeztu dira Hego Euskal Herriko zenbait eskualdetan. Zein da kontseiluen arteko harremana eta euren norabidea?

Gaur-gaurkoz, belaunaldi arteko izaera daukaten eskualde mailako kontseiluak sortzeko apustua egin dugu. Eragile horietako bakoitza eskualde mailan antolatuko da, kontseiluen arteko koordinazioa eta komunikazioa existitzen badira ere. Gure asmoa eskala geografiko handiagoan antolatzeke baldintzak sortzea da, eta eskualdeetako kontseiluak norabide horretan ekarpena egiten ahaleginduko dira.

Antolakuntza eskala handitzeko, gutxienez bi faktore ikusten ditugu beharrezko: lehenik, kontseiluak eta euren jardun politikoa ezagutzera ematea, proletalgoaren artean kontseilua-



«Gizarte burgesaren eta bere ondorioen aurrean programa komunistaren gaurkotasuna aldarrikatu nahi dugu, uste baitugu hori dela proletalgoak duen aukera bakarra»



ren erabilera eta militantzia handitzea-rekin batera. Bigarrenik, aurrerapauso teoriko zein programatikoak ematen jarraitzea, erronka handiagoei pres-takuntza garatuago batekin erantzun ahal izateko. Lana badugu aurretik.

Zuen aurkezpen testuan Mugimendu Sozialistaren bilakae-raren baitan kokatzen zenuten kontseiluaren sorrera. Zein da Mugimendu Sozialistako gainon-tzeko antolakundeekin dauka-zuen harremana? Eta zein beste eragile batzuekin daukazuena?

Mugimendu Sozialistak orain arte gabezia bat izan du belaunaldien arteko lankidetzari dagokionez: gehien-bat gazteek osatutako mugimendu bat izan da eta, egun ere, neurri han-di batean, horrela da. Orain dela urte batzuk gazte ginenok, pixkanaka, adi-nean eta esperientzian gora egiten ari bagara ere, aurrez aipaturiko hutsunea betetzen saiatuko dira Kontseilu So-zialistak. Horretarako, proletalgoaren eguneroko bizitzako arazo ezberdinei aterabidea ematea izango da egun kon-seiluak osatzen ditugunon erronka, proletalgoaren antolakuntza indepen-dentearen beharra eta eraginkortasuna frogatzeko.

Mugimendu Sozialistako antola-kunde bakoitzari bere esparrua jorra-tzea dagokio, eta Kontseilu Sozialistek antolakunde horien eragin esparrutik haragoko lan-eremuak ukituko dituz-te, bikoiztasunak ekidinez. Hori bai, perspektiba integral batekin egingo dute lan, eta ahotsa emango diete Mu-gimendu Sozialistaren ekimenei.

Sortu berria den eragile bat gara, eta oraindik ez dugu betarik izan Iruñe-rriko eragile ezberdinekin kontaktua egiteko. Gure partetik, deitura eralda-tzailea duten askotariko eragileei gure burua aurkezteko eta agendak parte-katzeko asmoa dugu eta, elkar ulertuz gero, lankidetzarako prestutasuna gure egiten dugu. /



«Iruñerriko erreferentzia politiko eta ideologiko sozialista izateko asmoa dugu. Horretarako, orain arte Mugimendu Sozialistak garatutako tesien zabalpena egitea eta horretan sakontzea dagokigu, koadro militanteak sortuz eta antolakuntza lurraldean hedatuz»



ERREPORTAJEA

Kontrol soziala. Zigor mailak, eskubideen galera

Testua **Arteka**

Ohikoa den arren, ez da zuzena politika normaltasun egoera batean epaitzea; araua nagusi den lekuetan, egunerokotasun-izaera hartzen duten menderatze-harremantetan desagertzen da politika. Krisia hasten denean agertzen da politika, normaltasunaren mugetan. Batzuek salbuespen-egoera deitzen diote murreko egoera horri, edo koiunturaren araberako behar iragankor bati erantzuten dion egoera, kanpokotasun gisa sortzen dena. Uste dugu, ordea, posible

denaren mugek definitzen dutela, normaltasunak berak baino askoz gehiago, zer den eta nola den existitzen den hori. Normaltasuna, beharbada, azpian duen errealitatearen kontrapartida empiriko bat besterik ez da: langile klase osoaren aurka araututako salbuespen-egoera etengabe bat.

Arbitrariotasun autoritarioa –autoritarismoa, azken finean– eta eskubideen urraketa etengabea indartzeko koiuntura mesedegarri bihurtu da mundu mailako pandemia. Hala ere,

pandemia ez da autoritarismoa eratzen den eremua edo oinarria, joera autoritarioa gauzatzeko bitartekoa baizik, ekoizpen kapitalistaren garapen sozialari estuki lotuta dagoena, eta latentea dena, beti agerikoa ez izan arren.

Azken hilabeteak bereziki argigarriak izan dira kasurako: polizia-indarkeria etengabea eta, ondoren, borroroak biktimizatzeko eta autoritarismo faxista legitimatzeko burgesiaren komunikabideen kanpaina, burgesiaren zuzeneko diktadura pasiboki defendatuko duen kolektibitate abstraktua sortzea bilatzen duen osasun-ideologiaren babespean. Indarkeria hori defendatzen eta justifikatzen dutenek lasaitasuna eskatzen dute eta ziurtatu, arauak betez gero eta protestarik egiten ez bada, ez dela arazorik izango. Diotenez, egoera hau ez da araua, munduko pandemia egoerak nahitaez ezarritako salbuespena baizik. Baina, horren orde, erantzun beharko genuke langileen aurkako polizia-indarkeriak, normaltasun-egoera batean ere, sistema hori ezaugarritzen duela; sostengatzen dutenen odoletik elikatzen da sistema hori, eta indarkeria horren nabaritasuna aurre egiten diotenen askatasun-

Pandemia ez da autoritarismoa eratzen den eremua edo oinarria, joera autoritarioa gauzatzeko bitartekoa baizik, ekoizpen kapitalistaren garapen sozialari estuki lotuta dagoena, eta latentea dena, beti agerikoa ez izan arren

nahien araberrakoa da.

Indarkeriazko gertakari horiek babesten dituen ideologiak gero eta gehiago sakontzen du despolitizazioan eta desdemokratizazioan, politikaren eta demokraziaren orde, pandemiari aurre egiteko ondo prestatutako espezialista eta burokraten diktadura tekniko bat defendatzeko. Demokrazia burgesaren eta parlamentuaren ordezkagarritasunaren ezabapena dakar horrek. Modu horretan, ageriko iruzur bat diren arren, agerian geratzen dira horien oinarriak eta oso klasista den klase ertain batera hedatzen dira sozialki; gai politikoei buruz medikuek, eta ez hautatutako ordezkariak, erabaki dezatela aldarrikatzen du klase horrek. Testuinguru horretan indartu egiten da polizia-agintaritza, boterea «guztion intereserako» erabili behar baitu, baina beti «guztion aurka». Horrela, gizarte honek autoritarismoa ikasten, onartzen eta sostengatzen du, bere burua defendatzeko neurri gisa.

DONOSTIA, POLIZIAREN INDARKERIAREN ETA ZIGORGABETASUNAREN ATARIKOA.

Azken hilabeteetan, euskal polizia autonomikoak hainbat aldiz kargatu du Donostian (Gipuzkoa), gertatzen ari zena ulertzen ez zuten herritarren begirada harrituen aurrean. Itxurazko irrazionaltasun edo salbuespen hori, ordea, poliziaren indarkeriaren ezinbesteko ezaugarria da, eta, beraz, poliziarena errepresio-erakunde gisa.

Lehenengo karga abenduaren 14an izan zen, bi egun lehenago gertatutakoa salatzeko deitutako manifestazio baten ondoren. Izan ere, abenduaren 12an, Ertzaintzak Trinitate Plazan zeuden hainbat gazteri eraso egin zien, eta hainbat pertsona zauritu zituen. Gazteen esanetan, aurreko asteetan nabarmena izan zen polizia gehiago zegoela auzoan.

Handik hilabetera, urtarrilaren 16an, berriz ere Trinitate Plazan, poliziak, hamalau ibilgailurekin, espazioa okupatu eta bertan zeudenen aurka

egin zuen. Hainbat pertsona identifikatu eta lau gazte atxilotu zituzten, baita hainbat pertsona zauritu ere. Egun bat geroago, irudi berdina, beste atxilotu batekin.

Urtarrilaren 20an, Ertzaintza berriro oldartu zen Donostiako Alde Zaharrean, eta bi pertsona atxilo eramán eta bederatzi zauritu zituen. Ospitaleratu egin behar izan zuten zaurituetako bat, masail ezurra hautsita. Bereziki aipatzekoa da argitara atera zen audio-grabazioa, non poliziaren agintari batek «jotzera tiro egiteko» agintzen zuen. Filtrazio horren garrantzia ez datza ezer berririk kontatzean. Audio-grabazioa garrantzitsua da, hain zuzen ere,



Azken hilabeteetan, euskal polizia autonomikoak hainbat aldiz kargatu du Donostian (Gipuzkoa), gertatzen ari zena ulertzen ez zuten herritarren begirada harrituen aurrean. Itxurazko irrazionaltasun edo salbuespen hori, ordea, poliziaren indarkeriaren ezinbesteko ezaugarria da, eta, beraz, poliziarena errepresio-erakunde gisa



36.6 artikulua jasotzen dute lege proiektu berriek, alarma egoeran gehien erabiltzen ari den artikulua, hain zuzen, eta badirudi ez dagoela hori kentzeko asmorik. Artikulu horrek Estatuko segurtasun indarrei desobeditzea zigortzeko aukera ematen du, arau-hauste larri modura

Arau-hauste administratiboak aukera ematen dio poliziari zigor bat epaitzeko eta betearazteko, prozesu juridiko arautu batek eskain ditzakeen berme urriak albo batera utzita

jakina dena agerian uzten duelako, eta horrek formalismo oro gainditzea ahalbidetzen duelako eta gertakari batzuei buruzko hitzezko kritika soilak baino eskakizun handiagoak inposatzen di-tuelako, jada biluzik dagoen errealitate bat agerian uzteko eraginkorra izateari uzten dion neurrian.

Onoreen zabaldutako informazioak ere ez du harritzen. Ohartarazi zute-nez, Ertzaintzak erabiltzen dituen foam SIRX balek % 50eko arriskua dute ga-rezurra hausteko, baldin eta inpaktua jasotzen duenarengandik 40 metro baino gutxiagora egonda jaurtitzen badira. SIR munizioarekin, distantzia hamabost metrora jaisten da. Horien ordez gozokiak jaurti behar ote lituz-keten galdetzen dute poliziaren esku-hartzearen defendatzaileek. Egia esan, inork ez du zalantzan jartzen indarke-ria eta errepresioa poliziaren eginkizun zehatzak direnik, inork ere ez, polizia demokratizatu nahi dutenek salbu.

Antzeko errepresio kasuak izan zi-ren Santurtzin (Bizkaia) eta Pasaian (Gipuzkoa), besteak beste. Asko izan dira poliziaren indarkeriari emandako erantzunak. Burgesiaren komunika-bideak, poliziak zuzenean esku har-tuta daudenak, gaitzetsi egin dituzte erantzunak. Era berean, poliziaren in-darkeria salatu eta aurkaratu dutenak mehatxatu dituzte polizia-salaketekin, horrekin poliziak eta Estatuak ezkutatu nahi dutena berretsiz. Estrategia argia izan da: indarkeriaren arrazoia kan-poan bilatzea, eta ez Estatuaren erre-presio-erakundearen barne dinamikan. Hala, istiluak aldeztu aurretik antolatu-takoak zirela baieztatzen dute zabal-tzeko poliziaren indarkeriaren aurkako erantzuna ez dela erantzun bat, indar-keriaren kausa bera baizik. Horrek esan nahi du kanpaina horren helburua au-

toritarismoaren laborantza-eremu eta zimendu den poliziaren zigorgabetasu-na hedatzea dela, are gehiago.

Nabarmena den Estatuaren militari-zazioaren eta poliziaren zigorgabetasu-naren joera iraunkorrekin lotu gabe, baina, epe laburreko gertaera horiek ez lukete ezer adieraziko. Azken urteotan, herritarrak kontrolatzeko hainbat lege jarri dira martxan. Espainiako Estatuan Mozal Legea da, ziurrenik, ezagunena eta ondorio larrienak ekarri dituen.

MOZAL LEGEAK BOST URTE

Herritarren Segurtasunerako Legea 2014ko martxoaren 30ean onartu zen, eta 2015eko uztailan jarri zen indar-rean. 2018ko irailean legea indargabe-tzeko prozesu parlamentarioa hasi zen arren, hainbat urtez saiatu ondoren, eta nahiz eta indargabetzea onartu, gaur egun indarrean jarraitzen du, ordez-katuko duen lege berri bat onartu ar-te. Bitartean, errepresio-bolada betean gaude, non legea inoiz baino gehiago ezartzen ari den. Gainera, ezerk ez du adierazten balizko lege berri batek ezer aldatuko lukeenik. 36.6 artikulua jaso-tzen dute lege proiektu berriek, alarma egoeran gehien erabiltzen ari den arti-kulua, hain zuzen, eta badirudi ez da-goela hori kentzeko asmorik. Artikulu horrek Estatuko segurtasun indarrei desobeditzea zigortzeko aukera ematen du, arau-hauste larri modura.

2015eko uztailan indarrean sartu zenetik 2019ko abenduaren 31ra arte, 1.009.729 isun jarri ziren araudi horren bidez, guztira, 563,3 milioi euroko zen-batekoarekin, betiere Espainiako Es-tatuko Barne Ministerioak emandako datuen arabera. Baina datu horietan ez daude jasota Ertzaintzak, Foruzain-goak edo Mossos d'Esquadrak jarritako isunak.



Alarma egoeraren lehen 100 egunetan, Espainiako Estatuko zigorren kopuruak %42 egin zuen gora, Mozal Legea indarrean sartu eta lehen hiru urte eta erdiarekin alderatuta. Guztira, 1,2 milioi isun jarri ziren alarma egoeraren tarte horretan. Halaber, 45.000 zigor inguru ezarri dituzte Hego Euskal Herrian, eta 464 lagun atxilotu dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan



Daniel Mayrit "Imágenes autorizadas"

Denbora tarte berdinean, Hego Euskal Herrian 29.000 zigor baino gehiago ezarri ziren Mozal Legea aplikatuta. Horien artean, 8.000 inguru egongo lirateke eskubide sozial eta politikoekin lotuta, hau da, zuzenean antolatutako gatazkekin.

Hala ere, alarma egoeraren lehen 100 egunetan, Espainiako Estatuko zigorren kopuruak % 42 egin zuen gora, Mozal Legea indarrean sartu eta lehen hiru urte eta erdiarekin alderatuta. Guztira, 1,2 milioi isun jarri ziren alarma egoeraren tarte horretan. Halaber, 45.000 zigor inguru ezarri dituzte Hego Euskal Herrian, eta 464 lagun atxilotu dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan.

Espainiako Estatuko zigorren % 70 –guztira, 704.604– bide publikoan drogak kontsumitzeagatik edo edukitzeagatik jarri dira. Arau-hauste hori larritzat jotzen da. Ezarritako zigor kopuruari dagokionez, bigarren postuan daude herritarren segurtasunarekin lotutakoak; besteak beste, manifestazioak eta kontzentrazioak, segurtasun-indarrekiko errespetua eta lankidetzatza, identifikazio-dokumentuak, bandalismoa eta higiezinaren okupazioa. Azpikategoria horiek guztiak, ikuspegi sistemikotik, nahastu egin ohi dira kasu askotan, testuinguru sozial jakin ba-

tean benetan erreprimitzen diren gertaerak manipulatzeko asmoz. Gatazka horiekin lotutako isunak 197.288 dira, isun guztien % 19,5. Kopuru hori ez da nolanahikoa, kontuan hartzen badugu gatazka sozial zuzenak duen posizio erlatiboa, askoz zabalagoa den drogen kontsumo orokorrarekin alderatuta.

Hirugarren postuan daude armak edo lehergaiak edukitzeagatik, fabrikatzeagatik edo garraiatzeagatik jarritako isunak, gertakari hori, bere larritasunagatik, delitu penala ez denean. Guztira, 107.837 arau-hauste egin dira legea indarrean sartu zenetik, hau da, arau-hauste guztien % 10,5.

ARBITRARIOTASUNA ETA AUTORITATEA

Mozal Legearen bereizgarriak nabarmenena *arau-hauste administratiboa* kontzeptua da. Arau-hauste administratiboak aukera ematen dio poliziari zigor bat epaitzeko eta betearazteko, prozesu juridiko arautu batek eskaini ditzakeen berme urriak albo batera utzita. Jarritako zigorrak erregistratuta geratzen dira eta zigortuaren espedienteari gehitzen zaizkio, arau-hausleen erregistro bat osatuz. Gainera, legea indarrean jartzearekin batera, zigorrak gogortu egin ziren.

Aurretik hutsegitea edo falta zena delitu arin bihurtu zen ondoren, eta arau-hauste arina zena delitu larri, 30.001 eta 600.000 euro bitarteko zigorrekin.

Zigortzailea eta betearazlea ordezkagarritasunaren eta errebokagarritasunaren printzipio demokratikoa auresuposatzen duen bitartekaritza prozesu politikotik askatzean, zigorfuntzioa egitura zurrun bati egokitzen zaio, zeinaren aurrean ez dagoen defentsa posiblerik, ezta aurre egiteko gaitasunik ere. Azken batean, poliziaren hitza eztabaidaezina da, baina baita polizia bera ere, bere kabuz eta guztien aurka funtzionatzen duen, eta helegiterako aukerarik ematen ez duen bote-re-egitura baten betearazle bihurtzen baita.

Legearen beste ezaugarri bat, arbitrariotasun autoritarioaren printzipioari datxekiona, legearen aplikazio-xedearen definiziorik eza da: poliziaren interpretazioaren eta hitz eztabaidaezinaren mende dauden printzipio orokorrak, zigor arbitrarioetan ebazten direnak eta, arbitrariotasun orok bezala, herritarrei ezegonkortasuna, ziurgabetasuna eta babesgabetasuna eragiten dietenak. Errezeta autoritario zaharra da Estatuaren eta bere morroien irrazionaltasun bortitza, berme juridikoak

Zigortzen diren kasu zehatzetatik harago, Mozal Legearen emaitzarik egiazkoena da poliziak kaleak okupatzea eta herritarren gaineko kontrol soziala areagotzea. Horrekin batera, emaitzaren parte da, batetik, poliziaren zigorgabetasuna eta, bestetik, gizarte-ezintasuna poliziaren errepresioaren aurrean

eta herritarren eskubideak bertan behera uzten dituen.

Baina, agian, Mozal Legearen ezarpenik sonatuena polizia grabatzeko debekua da. Legearen arabera, debekatuta dago polizia grabatzea, grabazio horrek polizia-agentearen segurtasun pertsonala edo bere familiarena arriskuan jar badezake. Beste behin ere, polizia-agintaritzari mesede egiten dion eta bere ekintzei zigorgabetasuna ematen dien zehaztugabetasun baten aurrean aurkitzen gara. Zigorgabetasuna autoritarismoaren oinarrizko printzipioa da, ez bailitzateke autoritarismoa izango bere legezkotasunak bere aurka egitea ahalbidetuko balu. Polizia grabatzeko debekuak, gainera, bere jardunaren frogak biltzea eragozten du, kasu askotan balio judizialik ez duten probak, baina, gutxienez, poliziaren izaera bortitza erakusteko aukera ematen dutenak. Poliziaren indarkeria grabatzea eragotziz, bere kritika eta salaketa ere eragozten dituzte, eta babesik gabe uzten dituzte haien indarkeriaren biktimak.

ZIGOR MAILAK

Mozal Legeak hainbat ekintza zigortzen ditu, eta zigorrak hiru kategoriatan bereizten ditu, larritasun mailaren arabera: arina, larria edo oso larria.

Arau-hauste arinak 100 eta 600 euro arteko isunekin zigortzen dira. Besteak beste, kategoria horretan zigortzen dira poliziaren aurrean ez identifikatzea, higiezin edo banketxe bat okupatzea, eraikinak eskalatzea, manifestazio edo protesta batean polizia

iraintzea, kaleko salmenta ibiltaria edo kalean edari alcoholdunak kontsumitzea. Paradoxikoki, azken hori izan da azken hilabeteetako polizia-karga bortitzak justifikatzeko erabili den arrazoia, agerian utziz poliziari ekintzarik sinesgaitzenak ere balio diola bere autoritatea indartzeko eta herritarrek makurrarazteko. Esan gabe doa aipatutako gainerako ekintza zigorgarriak soil-soilik langile klasearen gaitasunen aurka zuzenduta daudela, agerian utziz ez dela herritar guztientzako lege soil bat, baizik eta, poliziaren indarkeriaren diziplina-eginkizuna betetzeaz gain, proletalgoa menderatzeko helburu politikoa ere betetzen duela.

Ildo beretik garatzen dira zigor larriak eta oso larriak. Lehenengoei 601 eta 30.000 euro arteko isunak jartzen dizkiete, eta bigarrenei 30.001 eta 600.000 euro artekoak.

Zigor larrien artean daude etxegabetze bat eragozte, manifestazio bat eskatzen denean ez amaitzea, polizia grabatzea, edo Kongresuaren, Senatua-ren edo parlamentu autonomiko baten egoitzaren aurrean manifestazioa egitea segurtasuna hautsiz. Baita drogak leku publikoetan kontsumitzea, zein bide publikoan edo adingabeak dauden tokietan sexu-zerbitzuak eskatzea edo onartzea ere.

Zigor oso larriak dira, aldiz, zerbitzu publikoen azpiegiturretan biltzea edo manifestatzea, nahiz, uneko autoritateak agindutako debekuaren aurka, ikuskizunak edo jolas-jarduerak egitea.

ONDORIOA. ESKUBIDEEN GALERA

Zigortzen diren kasu zehatzetatik harago, Mozal Legearen emaitzarik egiazkoena da poliziak kaleak okupatzea eta herritarren gaineko kontrol soziala areagotzea. Horrekin batera, emaitzaren parte da, batetik, poliziaren zigorgabetasuna eta, bestetik, gizarte-ezintasuna poliziaren errepresioaren aurrean. Horrek guztiak autoritarismoa eta menderakuntza indartzera darama. Baina ez hiritargoaren, talde sozial abstraktu gisa, gaineko menderakuntza; hiritargo horren barruan dagoen bultzada baten gainekoa baizik, gizarte berri baterako bultzada: proletalgo iraultzailea.

Arbitrariotasunak eskubidea etetea dakar berekin eta, hainbeste arbitrariotasun eta eskubide murrizketaren artean, ustez guztiei eragiten diena, gailentzen den benetako helburua politika egiteko eskubidearen zentsura da, munda aldatzeko eskubidearen zentsura. Baina hori ezin da argi eta garbi azaldu, ez bada eskubideen murrizketa kolektibitatearen borondatea gauzatzeko birtarteko gisa ikusten den koiunturaren bitartez. Bestela esanda, politikarako eskubidea, guk iraultzaren behar gisa itzuliko genukeena, modu batean soilik urra daiteke: eskubide horren ukapenak politika ezarritako mugetatik harago bultzatuko ez duen modu batean. Eskubide sozialak ukatzea da helburu hori lortzeko modurik eraginkorrena, eta horren eraginkortasunaren froga da, hain zuzen, «denok» abstraktu baten izenean eta mesedetan egitea hori. /



Argitaraturik
2021EKO URTARRILEAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
SS-01360-2019

Lizentzia



arteka

